



ALDEAS
INFANTILES SOS

GELDITU *eta*
pentzatu

PROGRAMA DE
EDUCACIÓN EN VALORES
SECUNDARIA
CURSO 2020-2021

ELKARTASUNA

POBREZIAREKIN, DESBERDINTASUNEKIN, JUSTIZIAREKIN

Aldeas Infantiles SOSek helburu hauek lortzen laguntzen du:



ELKARTASUNA

POBREZIAREKIN, DESBERDINTASUNEKIN ETA JUSTIZIAREKIN

Elkartasunaren balioa lantzea proposatu nahi dizuegu aurten. Bizitzen ari garen une historiko honi aurre egiteko, ezinbesteko balioa iruditzen zaigu; etorkizunari heltzekotan, denok izango dugulako elkarren beharra, elkarrekin partekatzeko premia, eta izan behar dugulako norberekoieria baztertzeko gaitasuna. Ez gaude bakarrik. Onerako edo txarrerako, mundu bakarra partekatzen dugu, eta bati eragiten dionak beste guztioi eragiten digu. Ume baten bizitzaz ari garenean, horrek are garrantzi handiagoa du.



Pedro Puig
Aldeas Infantiles SOS España-ko Lehendakaria

Gizarte-hezkuntzan edo hezkuntzan lan egiten dugunok badakigu haur bati zaintza emateak zer-nolako onura zoragarriak dakartzkion munduari, eta zaintza ukatzeak, aldiz, kalte ikaragarriak eragin ditzakeela. Horregatik, haurren Eskubideak defendatzen eta **Garapen Iraunkorrerako Helburuen bide-orriak** erakutsitako bidea lantzen jarraituko dugu, helburu horiek definitzen baitute neurri handi batean zein den gure erakundearen estrategia. Beraz, balioetan hezten jarraituko dugu, sinetsita baikaude haxe dela balio horiek sendotzeko garaia; barruko indarra, inoiz erauziko ez diguten hori, ateratzekoa. Hain zuzen ere, horregatik dirau indarrean programa honek 25 urteren ondoren. Aurten, lehenengo aldia bezalaxe, batere gaurkotasunik galdu ez duen gaiari helduko diogu: elkartasuna, oraingoan formatu digitalean eta etxetik hezteko aukerak aintzat hartuta.

Ohi denez, aurtengo programa hiru bloke didaktikotan dago banatuta, metodologiari dagokionez. **Lehendabiziko blokea 1. GIHari** eskaini zaio, hau da, pobrezia aurkako borrokari: haurren oinarriko beharretara garamatza horrek, pobrezia haurren bizitzeko aukerak baldintzatzen ditu eta. Beti pentsatzen dugu pobrezia gugandik urrun dagoela, baina gure artean dago, eta haurren eskubide bat urratzen du: ongizaterako beharrezkoa den guztia dutelarik hazteko eskubidea. Zin dagizuegu borroka egingo dugula gure herrialdeko haur guztiek elikagaiak, arropa eta etxebizitza duina izan dezaten.

Jakitun garenez mundua goitik behera aldatu dela hilabete gutxian, **bigarren blokean 10. GIHa ekarriko dugu erdira**. Izan ere, Aldeasen eguneroko lanean, oso gertukoak ditugu desberdintasunak gutxitzeko borroka eta borroka horren helburua: arrakalarik ez izatea batzuen eta besteen eskubideen artean ez hezkuntzan ez osasunean, ezta gazteak lan-munduratzeko aukeran ere, bereziki zailtasun gehiago dituztenen kasuan (tutoretzapeko gazteak direlako edo haurren babeserako sisteman daudelako).

Bukatzeko, **hirugarren blokean, 16. GIHari lotutako justizia sozialaren** kontzeptura hurbilduko gara. Gure programaren ibilbidean, lehenengo aldia da horrelako gai bati heltzen dioguna, a priori haurrek ulertzeko zaila dena, baina, aldi berean, haiek bizi duten errealitateari zuzen-zuzenean eragiten diona. Ezin dugu ahaztu, txikiak ginela, justizia ulertzeko oso modu zorrotza genuela, eta, denboraren joanean, ulerker hori lausotzen edo moldatzen joan zitzaigula. Baina haurrek, ordea, inoiz baino sentiberagoak dira gai horrekin, eta hain zuzen ere, gizarte garatua izan nahi badugu, herritarren arteko elkartasunean oinarritutakoa, justizia soziala ezinbesteko baldintza izango da. Ikasketaz eta baikortasunez betetako ikasturtea opa dizuegu. Gauza ziurra da munduak ez diola aldatzeari utziko, baina guk gurean iraunkor jarraitu nahi dugu. Gizatasunean oinarritu behar dugu gizarte berria, gertukoa eta biziari atxikia beti. Mesedez, eutsi gure ideia eta baliabideak erabiltzeari, eta lagundu pertsona onak hezten, haiek eraikiko baitute mundua, ziurra ez, baina aukeraz betetakoa izaten jarraitzen duen mundua.

HAURRAK EZ DIRA JAIOTZEN BAKARDADEAN HAZTEKO

Munduan, hamar haurretik bat **gurasoen zaintzarik gabe** edo zaintza hori galtzeko arriskua duela hazten da. Espainian, 300.000 haur bizi dira horrela, 25etik bat, eta egoera horrek haurren garapen emozional, fisiko eta mentalari eragitearekin batera, haien oinarrizko eskubideak urratzen ditu.

Aldeas Infantiles SOSek lanean dihardu, batetik, **haurrek familia-giro babeslea izan dezaten** halakorik izaterik ez dutenean, eta, bestetik, egoera zaugarrian dauden familiek laguntza izan dezaten haurren zaintzan, eta, era horretara, haurrak gurasoengandik banantzea ekiditeko, ahal dela.

ALDEAS ELKARTEARI BURUZ

Aldeas Infantiles SOS 1967. urteaz geroztik dago Espainian. Haurtzarora laguntzeko xedea duen nazioarteko erakunde pribatua da, irabazi-asmorik gabea, konfesio artekoa eta joera politikorik ez duena. **1949an sortu zen** Imst-en (Austria) sortu zen, eta, egun, 136 herri eta lurraldetara dago zabaldua.

Gure lanaren ardatza haurren garapena da, laguntza beharrik gabe bizitzeko aski izan eta gizartean integratzen diren arte. Familia zaugarriak sendotzen **egiten dugu lan**, haiek haurrak egoki zaintzeko modua izan dezaten; gurasoekin bizitzerik ez duten haurrak babesten ditugu, familia-giro babesle bat eskainita, maitasunezko eta errespetuzko ingurune batean haz daitezen; eta gazteei laguntza ematen diegu garapen-prozesuan zehar, pertsona burujabeak izan daitezen. Gure jarduera-esparrua Nazio Batuen **Haurren Eskubideen** Konbentzioa da.

Aldeas Infantiles SOSek Elkartasunaren **Asturiasko Printzesa Sariaren** aitortza jaso zuen 2016an.



GURE LANA

Aldeas Infantiles SOS **hamar autonomia-erkidegotan dago**: Andaluzian, Aragoian, Asturiasen, Balear Uharteetan, Gaztela-Mantxan, Kanarietan, Valentziako Erkidegoan, Galizian eta Madrilan. Hauek dira lantzen ditugun programak:

BABES-PROGRAMAK

Autonomia-erkidegoekin hitzartuta, familia-giroa bermatzen dugu nukleo biologikoak horretarako aukera ematen ez duenean. Bitarteko hauek eskaintzen ditugu:

SOS familiak: haurrak ezin badu gurasoekin bizi, beste familia-ingurune bat eskaintzen diogu, erreferentziako pertsona egonkor bat duela, haurrak osoko garapenerako beharrezkoak diren zaintza eta maitasuna izan ditzan.

Familia-harrera: haurra beste harrera-programa batean badago (familia-harrera arrunta familia zabalean edo beste familia batean, nahiz familia-harrera profesionalizatua), babesa eta aholkularitza eskaintzen ditugu harreragileentzat, betiere haurraren, guraso biologikoen eta familia harreragileen interesak kontuan hartuta.

Lehen harrerako eta balorazioko programa: baliabide espezializatu honen bidez aldi baterako arreta eskaintzen diegu babesgabetasun-egoera larrian dauden haur eta nerabeei, kasu bakoitzean babesneurri egokiena zein den zehaztu bitartean.

GAZTEEN PROGRAMAK

Gure lana ez da amaitzen gazteak adinez nagusi bihurtzen direnean. Haien alboan jarraitzen dugu, hala nahi badute, garapen-prozesuan laguntzen. Haien premiei erantzuten diegu, behar duten babesa ematen diegu, eta prestakuntza eskaintzen diegu gizartean **eta lan-munduan integratzen** diren arte.

PREBENTZIO-PROGRAMAK

Familiak sendotzeko programak dira, familia babesgabeei zuzendutakoak, eta haien bizi-baldintzak hobetzea eta seme-alabak hobeto zaintzen laguntzea da xede nagusia, gurasoak eta haurrak elkarrengandik banandu beharrik ez izateko. Programa horien artean daude **eguneko zentroak, haur-eskolak** eta **familien ikasgelak**.

ZEHARKAKO PROGRAMAK

Eskubideak: haurtzaroari lotutako eskubideen ikuspegia zehar-lerroa da gure lan guztietan.

Parte-hartzea: gure programetako haur, gazte eta familiak proiektuetan parte hartzea animatzen ditugu, hobetzen lagun diezaguten eta haien beharrei ahalik eta egokien erantzun diezagun.

Jasangarritasuna: ingurumen-hezkuntza eta ingurune naturalaren zaintza gure proiektu guztietan hartzen ditugu kontuan.

Boluntarioria: boluntarioria sustatzen dugu, zeregin bakoitzerako pertsonarik egokienak aukeratuta eta behar duten formazioa eskainita.

BALIOETAN HEZTEA

Etorkizuneko belaunaldiak gizarte justuago eta solidarioago batean bizitzea nahi dugu. Horregatik, 1998. urteaz geroztik, balioetan hezteko proposamen erabilgarri eta originalak sortzen ditugu ikastetxe eta institutueterako. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako "Atxiki zure balioei" programak eta Bigarren Hezkuntzarako sortutako "Gelditu eta pentsatu" programak garapen pertsonal eta sozialerako beharrezko jotzen ditugun balioei buruzko gogoeta eragiten dute haur, gazte, guraso eta irakasleengan.

SENTSIBILIZAZIOA

Lanean dihardugu gizarteari haurren eskubideak eta beharrianak zein diren ezagutarazteko, eta, denon artean, egoera zaurgarrian dauden haurrak babestearen aldeko mugimendua sortzeko.

SOS AKADEMIA

Prestakuntzaz, ezagutzaren kudeaketaz, ikerketaz eta erakundearen kalitatearen kudeaketa-sistemaz arduratzen da. Akademiari esker, Aldeas Infantilesek bere profesional guztien hasierako eta etengabeko prestakuntza bermatzen du, eta errealitate sozialaren azterketa-lana egiten du, unean uneko egoerei erantzun eraginkorrek eman ahal izateko.

HAINBAT LORPEN



**32.984 HAUR ETA GAZTE
ARTATU GENITUEN 2019 URTEAN**



1.155 HAUR ETA GAZTE babestu zituzten gure
BABES-PROGRAMEK ESPAINIAN



3.778 HAUR ETA GAZTE hartu zituzten gure
PREBENTZIO-PROGRAMEK ESPAINIAN



1.139 GAZTEK parte hartu zuten gure
GAZTEEN PROGRAMETAN ESPAINIAN



26.912 HAUR ETA GAZTE babestu zituen
ESPAINIAKO ALDEAS INFANTILES SOS-EK LATINOAMERIKAN ETA AFRIKAN



Gainera, azken urte honetan, laguntza ematen ari gara
5.249 HAUR ETA GAZTERI GURE SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMEI ETA
ARRETA EZ JARRAITUARI ESKER

HURRENGO ERRONKAK

Badira 50 urte baino gehiago gure ibilbidea hasi genuela Espainian, eta urte horietan milaka gazte, haur eta familia babestu eta lagundu ditugu merezi duten ongizatea bermatu nahian. Zoritxarrez, gaur egun, haur asko dira oraindik gure laguntzaren beharra dutenak.

Espainian, **HAUR GURASOEN ZAINTZA
GABE GELDITZEKO ARRISKUAN DAUDE**

**HIRU HAURRETIK BAT POBREZIA- EDO
GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAN GELDITZEKO ARRISKUAN DAGO**

Egunean, **40 HAUR TRATU
TXARREN BIKTIMA DIRA FAMILIA BARRUAN**

ESPAINIAKO GAZTEEN % 30 INGURU LANGABEZIAN DAUDE

ALDEAS MUNDUAN



ALDEAS INFANTILES SOS

1949an sortu zen Imst-en (Austria), eta, gaur egun, **136 herrialde eta lurraldetan** ditu egoitzak



47.400 HAURRI FAMILIA-GIRO BABESLEA eskaintzen diegu mundu osoan zehar ditugun **541** egoitzetan, familia-harrera babesteko gure **81** programei esker eta zaintza alternatiboko beste hainbat programaren bitartez



Laguntza ematen diegu **18.400 GAZTERI** gure **autonomia- eta emantzipazio-programei** esker



Babesa ematen diegu **395.000 HAUR, GAZTE ETA FAMILIARI** gure **680** prebentziorako eta familia sendotzeko programei esker



267.500 HAUR ETA GAZTEREN FORMAZIOAN laguntzen dugu gure **653** heziketa-programei esker



Osasun-arreta eskaintzen diegu **295.500 PERTSONARI** gure **75** osasun-programei esker




209.800 PERTSONARI eman diegu laguntza **20** herrialdetan



2019an, Aldeas Infantiles SOSek **MUNDUAN 1.233.600 PERTSONA LAGUNDU ZITUEN FAMILIA-GIRO ETA INGURUNE SEGURU BATEAN HAZTEKO AUKERA IZAN ZEZATEN**

PROGRAMAK KONTINENTEETAN ZEHAR



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUEKIN LERROKATUTA

2015eko irailaren 25ean, munduko 193 herrialdek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten: 17 helburu eta haiei lotutako 169 xede, hurrengo 15 urteetarako garapenaren marko orokorra ezartzen dutenak arlo sozialean, ekonomian eta ingurumen-gaietan.

Aldeas Infantiles SOSek agenda berria sortzeko prozesuan parte hartu zuen, eta, beste elkarte batzuekin batera, lortu zuen arreta erakartzea zainzarik ez duten edo hura galtzeko arriskuan dauden haurrei buruz.

Horrez gain, erakundearen estrategia datozen urteetarako Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GHI) lotuzaie hertsiki. Seme-alabak gurasoengandik banantzeari aurre hartuz, kalitatezko zaintza alternatibo bat bermatuz, eta gazteak bizitza independenterako prestatuz, Aldeasek oinarritzko bost helbururen alde egiten du: pobrezia desagertzea, kalitatezko hezkuntza, lan duina, desberdintasunak gutxitzea eta bakea eta justizia.

Era berean, Aldeasen lanak beste xede batzuk lortzea ere nabarmen ahalbidetzen du, nola osasunarekin lotutakoak, hala genero berdintasunari eta lankidetzaren itunak sortzeari dagozkionak.



ELKARREKIN POBREZIA DESAGERRARAZIKO DUGU





ELKARREKIN POBREZIA DESAGERRARAZIKO DUGU

Hazi ahala, helduak egiten garen heinean, aurretik espermentatu gabeko “ni” berri bat jaiotzen da: gure “ni”-a munduan, unibertsoan eta bizi garen gizartean. Kontzientzia hartzen dugu gure etxeaz, ikastetxeaz eta auzoaz harago eta gure familiaz eta lagunez harago, badirela ez bakarrik beste herrialde eta bizimodu batzuk –hori Lehen Hezkuntzan ezagutu genuen–, baizik eta badirela gureak ez bezalako beste errealitate batzuk, bai mailari sozialean bai maila ekonomikoan.

Pobrezia eta berdintasunik eza gure planetaren parte dira. **Nazio Batuen** arabera, 238 milioi gazte daude pobrezia-egoeran eta bizitzeko **egunean dolar bat pasatxo** baino ez dutela, eta 500 milioi gazte baino gehiago daude bizitzeko egunean 2 dolar besterik ez dutela. Imajinatuko duzun bezala, diru kopuru hori ez da nahikoa eguneko hiru otorduak egiteko eta dieta osasungarria izateko; halaber, ez die aukerarik ematen arropa edo norberaren garbitasunerako objektuak erosteko; etxeetan oinarrizko hornidurak gabe bizi dira, eta, adibidez, ez dute egun osorako elektrizitatea, ez ur berorik, ez kalefakziorik; sarritan, ikasketak bukatu ezinik gelditzen dira, familiari laguntzeko lan egitera behartzen dituztelako, etab. Hala ere, **bizi-baldintza** horiek gorabehera, gu bezalako gaztetxoak dira, ikasteko gogoia dutenak, ondo pasatu nahi dutenak, aurrera egin nahi dutenak... Horregatik, solidarioak izan behar dugu eta laguntza eman, ahal dugun neurrian.

Gosari edo merienda solidario bat, bigarren eskuko azoka bat, dirua biltzeko lasterketa bat... Askok dira pobreziaaren inguruan arreta-dei bat egiteko, solidarioak izateko eta dohaintzak

biltzeko gazteek eskura dituzten aukerak; gainera, ikaskideekin jardura desberdin bat egiten pasatuko duten denbora inoiz pentsatuko zutena baino askoz atsegina egingo zaie. Eta elkartasuna kutsagarria denez, ikasleak irakasle, familia, ezagunak... kutsatzen ahaleginduko dira. Izan ere, etorkizuneko belaunaldiak izango dira planeta zuzentzeko erabakiak hartuko dituztenak... eta haien eskura dago mundua aldatzeko –edo aldatzen saiatzeko– gaitasuna, denok gizarte hobea batean bizi gaitezen.

Historiako garai aurreratuenetako batean bizi gara, eta inoiz ez bezalako bizi-kalitatea dugu. Horregatik, ezin dugu aukera galdu garai hau inoizko garairik justuena, berdinzaleena eta solidarioena izan dadin. Zenbat eta gehiago izan eta zenbat eta jende gehiago inplikatu “kanpaina” honetan, orduan eta handiagoa izango da onura. Solidarioak izatea gure esku dago.

URRIAREN 17A ETA BESTE 17 GUZTIAK



HELBURUA

Pobrezia Desagertzeko Nazioarteko Eguna gogoratzea eta ulertzea NBEk zergatik erabaki zuen egun hori izendatzea. Pobreziaren arazoa oso larria dela eta, elkartasuna era jarraitu eta iraunkorrean baliatuz, haren ondorioak asko gutxitzeko aukera izango litzatekeela kontuan hartzea. Elkartasuna ez da erronka handiak jartzea, erdiestea (edo frustratzea erdietsi ezin direlako), eta, gero, betiko ahaztea. Hori baino garrantzitsuagoa da egunero edo ahal den guztietan apur bat ekitea, baina etenik gabe.



IDEIA NAGUSIAK

Elkartasunez aritzea era jarraitu eta iraunkorrean; ez da nahikoa behin izatea solidario eta inoiz gehiago ez izatea. Elikadura osasungarria.



BALIABIDEAK

Ogitartekoak, esnea, zukuak, ogia, txokolatea, madalenak, pastelak, bizkotxoak, fruta, etab.; mahaiak, mahai-zapiak, ahozapiak, kartoizko edalontzi eta platerak, etab.



GARAPENA

Urriaren 17a Pobrezia Desagertzeko Nazioarteko Eguna da, eta, gogoratzeko, ikasleek gosari solidarioa antolatuko dute. Salmentatik lortutako dirua **baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboei** emateko izango

da, haien pobrezia, neurri batean, arintzeko. Ikasle-irakasleek fruta, esnea, irabiakiak eta etxean egindako gozoak ekarriko dituzte eta elikadura osasungarria bultzatuko dute. Ikaskide guztiak egongo dira gonbidatuta parte hartzera, eta, borondatezko diru-kopuru bat ematearen truke, gosari ederraz gozatuko dute eta, aldi berean, kausa on baten alde egingo dute. Ikasleak bildutako diruaren dohaintza burutzeaz arduratuko dira. Aurrerantzean, hilabete bakoitzaren 17an, pobreziaren egunaren oroitzapena egitea proposatuko dute, pobrezian bizi diren pertsonen egun batean ez, egunero egiten dutelako hori. Izan liteke aldiro gosari solidarioa prestatzea, edo 3-4 ikaslek 5 bat minutuko azalpen txiki bat egitea pobreziaren alderdi bati buruz: gure hurbileko pobrezia, beste herrialde batzuetakoa, laguntzak, formazioa eta pobrezia, lan prekarioa, bidezko merkataritza, etab.





GEHIAGO

Proposa daiteke ikasturtean zehar, hilabete bakoitzaren 17an, zineforuma egitea eta, horrela, pobrezia eta pobrezian bizi direnen gaia era batera edo bestera lantzen duten filmak ikustea. Film zaharrak eta berriak txandatu daitezke, eta hurbilekoak egingo zaizkien istorioak kontatzen dituzten filmak zein beste errealitate eta kultura batzuetakoak direnak. Aukera batzuk **hauek**: *Parasite*, *Raining Stones* (*Lloviendo piedras*), *Barrio*, *Cidade de Deus*, *Les Misérables*, *Slumdog Millionaire*, *Miracolo a Milano* (*Milagro en Milán*), *Children Underground*, *Cafarnaún*, *Manbiki Kazoku* (*Un asunto de familia*).

ETXEAN

Siempre que la economía lo permita, entre toda la familia se intenta colaborar en erradicar la pobreza haciéndose socio de alguna ONG o haciendo una donación. Los GEHIAGO jóvenes pueden colaborar en parte con sus propios ahorros.

URRATSEZ URRATS: URRATS BAKOITZAK AXOLA DU



HELBURUA

Orain inoiz baino gehiago, gizartea gero eta indibidualistagoa den honetan, gazteei ikusarazi behar zaie elkartasunean dagoela indarra, eta denok batera helburu handiak lor ditzakegula.



IDEIA NAGUSIAK

Elkarrekin desafio handiagoei egingo diegu aurre; solidarioagoak izan behar dugu eta laguntza eman elkarri eta beharra dutenei.



BALIABIDEAK

Arbel digitala edo telebista; zineforumerako hautatutako filmak.



GARAPENA

Tutoretzako klasean, bi astean behin, zineforuma antolatuko dugu film batzuetan ikusteko nola, elkarri lagunduz eta elkarlanean, jendeak egoerak hobetzea lortzen duen. Adibideak: **¡Qué bello es vivir!**, filmean (Qué bello es vivir!) herri oso baten diru-bilketari esker, protagonistak ez du hondamendian bukatuko eta ez du bere buruaz beste egingo, zirkunstantziak eta zorte txarrak horretara bultzatu zuten arren. Laurogeiko urteetako Witness filmean (Único testigo), amish komunitatearen batasunak auzokide batentzako etxea eraikitzea ahalbidetuko du. **El niño que domó el viento**, filmean (El niño que domó el viento), Afrikako herri batek aurre egingo dio lehorte gogor eta luze

baten ondoriozko miseria gorriari, zer eta herritarrek lurra elkarrekin lantzeari ekingo diotelako eta herriko William Kamkuamba gazteak hondakin batzuk hartuta haize-errota bat eraikitzeari esker, soroetarako ura eskuratuko dutelako, besteak beste. Ikasleek tankera honetako beste filmen bat proposatu nahi badute, zineforumerako film-zerrendari erantsiko zaio.





GEHIAGO

Taldeka, pentsatu behar dute **zer erronkari hel diezaioketen** beharra duen batentzat, banakoa edo kolektiboa, laguntza lortzeko. Adibidez, bilketa txiki bat egitea: dirua, arropa, dagoeneko erabiltzen ez dituzten objektuak, elikagaiak, etab. Denon artean egindako ahalegina laguntza handiagoa izan daiteke bakoitzak bere aldetik era indibidualean egindakoa baino.

ETXEAN

Familian lanak egiteko errutinak ezarriko dira, eta kide guztiek hartu behar dute parte **lan-banaketan**: ezin da onartu zeregin gehienak gurasoen gain geratzea. Lanak denon artean banatzen badira, denek izango dute aisialdirako denbora eta, beraz, gure arteko harremanak ere begirunetsuagoak eta bidezkoagoak izango dira.

TIK TOK. POBREZIAK EZ DU GRAZIARIK



HELBURUA

Pobrezia gurekin zerikusirik ez duen urrutiko zerbaite dela pentsatzeari uztea. Pobrezia inguratzen gaitu eta uste duguna baino gertuago dago. Borroka gaitzen pobrezia desagerrarazteko.




IDEIA NAGUSIAK

Arazoei aurre egitea, saihestu gabe eta ezikusiarrena egin gabe. Pobrezia denoi eragiten digu, eta gure esku dago pobrezia borrokatzeko ahal den guztia egitea.



BALIABIDEAK

Mugikorrak eta wifi konexioa edo datuak.



GARAPENA

Oso gustukoa dugu abestea, dantza egitea eta Tik-Tokerako koreografiak prestatzea. Bada, balia ditzagun sormena eta irudimena abesti eta mugimendu berezi batzuk asmatzeko: abestien hitzen bidez adieraziko dugu zein gutxi gustatzen zaigun pobrezia eta zer-nolako gogoia daukagun planetatik desagertu dadin; eta, abestiez gain, musikari laguntzeko koreografiak sortu ondoren, dena grabatuko dugu **Tik-Tok**. aplikazioan jartzeko. Horrela, hobby bat baliatuko dugu, mezuen bitartez, elkartasuna adierazteko.



GEHIAGO

Tik-Tok aplikazioko gure bideoak partekatuko ditugu lagun, senide, ezagun, jarraitzaileekin, etab.; egin daitezela biral eta irits daitezela ahalik eta jende gehienarengana.



ETXEAN

Etxeke ordenagailuan gure ikastaldeak igotako bideoak ikusi ondoren, elkarrekin komentatuko dugu zer iruditu zaizkigun, zer sentiarazi diguten eta nola joka dezakegun pobrezia-egoeran bizi direnei laguntzeko.

VALORA LO QUE TIENES



HELBURUA

Pobrezia planeta osoan dago hedatuta, baita gure herrialdean eta auzoan ere: oso hurbil dago. Pribilegiatuak gara bizitzeko behar den ongizatea badaukagulako. Esker onak gure lekuan jartzen gaitu, indarra ematen digu eta munduarekin adiskidetzen gaitu; garrantzitsua da beste batzuek behar dutenaz konturatzea eta solidarioak izatea



IDEIA NAGUSIAK

Esker onekoak, konprometituak, solidarioak eta eskuzabalak izatea.



BALIABIDEAK

Koltxonetak, bozgorailuak dituzten ordenagailuak eta Interneterako konexioa.



GARAPENA

Meditazio-saio bat prestatuko dugu Gorputz Hezkuntzan. Ikasleek, arropa erosoa jantzita eta yogarako moduko koltxoneten gainean jarrita, arnasa sakon hartuko dute **hondoko musika lasaia**, entzuten duten bitartean. Orduan, sentitu egin behar dute nola dauden emozionalki, eta bisualizatu egin behar dituzte beren bizitzako etapak (lehendabiziko oroitzapenak, familia, lehenengo lagunak, eskola, Bigarren Hezkuntzan hastea, unerik zoriontsuenak eta gogorrenak). Jarraian, momentu honetan zer premia dituzten errepasatuko dute, ea eskubideak

beteta dituztela sentitzen duten... Saioa bukatzeko, eskerrak emango dituzte ingurune eta egoera pribilegiatu batean bizitzeagatik. Jarraian, halako zortetik ez duten gaztetxoekin solidarioak izateko eta konpartitzeko ideiak pentsatu eta proposamenak egingo dituzte. Proposamenak gauza





fisikoen ingurukoak izan daitezke, edo denborarekin lotutakoak, adibidez: baliabide gutxiago eta hezkuntza-egoera ezegonkorragoa duten gaztetxoei ikasteko eta ikastetxeko lanak egiteko laguntza ematea.

GEHIAGO

Ikastalde osoaren inplikazioa lortuta, etorkizunean era baikorrean pentsatzen lagunduko digun **meditazio-saio jendetsu eta solidarioa** egingo dugu. Antzezlan edo kontzertu bat ere egin daiteke ikastalde guztien artean, eta sarrera-salmentatik ateratako dirua premia duten ikastetxeei eman dakieke.

ETXEAN

Familiak ere egin dezake ekintza solidarioren bat, adibidez: dohaintza puntual edo jarraitua egitea, Internet bidezko erosketetan kontua borobiltzea pobrezia desagerrarazteko lanean ari den elkarte baten alde, haur bat babesean hartzea, edo, besterik gabe, kalean bizi diren pertsona pobreei laguntzea, ahal den neurrian.

PLAYLIST-AK POBREZIA HOTSA DU



HELBURUA

Pobrezia-egoeren aurrean enpatia sentitzea, ikasleei hain hurbilekoak eta gustukoak zaizkien artisten abestiak baliatuz.



IDEIA NAGUSIAK

Pobrezia-egoeran bizi den jendearen larruan jartzea, musikak erakusten dituen errealitateen bitartez.



BALIABIDEAK

Mugikorrak eta **Spotify** kontu bat (doako bertsioa).



GARAPENA

Spotify-ko zerrenda bat prestatuko dute beren artista gustukoenen lan batzuk aukeratuta; hori bai, abesti guztiek baliabide falta eta pobrezia izan behar dituzte protagonista, adibidez Phil Collinsen (“**Another day in Paradise**”), Elvis Presleyren (“**In the Ghetto**”), Bob Marleyren (“**No woman, no cry**”) edo Tracy Chapmanen (“**Fast car**”). Badira artista arrakastatsu batzuk, jatorri apalekoak izanik, bestelako errealitate batzuk erakusten dituztenak: azter ditzatela haien azken lanak, ea zer abesti plazaratu dituzten berriki honako sortzaile hauek, besteak beste: hip-hop eta rap estiloetako **Jay-Z** edo **Kendrick Lamar**, pop estiloko **Selena Gomez**-ek, trap estiloko **Yung Beef** edo **Cardi B**.



GEHIAGO

Spotifyn aukeratutako abestiekin zerrenda egiten dutenean, ikaskide guztien artean partekatuko dute, eta baita Bigarren Hezkuntzako beste ikasmailetakoekin eta institututik kanpoko lagunekin ere. Entzun dezatela denek pobreziaren aurkako “soinu-banda”.



ETXEAN

Familian, ikasleek gurasoen garaiari begiratuko diote, eta pobrezia-egoerak islatzen zituzten orduko abestiak bilatuko dituzte. Esate baterako, hirurogeita hamarrek hamarkadaren bukaeran, **punk**-a agertu zen: aldarrikapenez betetako musika zen, eta abestien letrek monarkiari eta gizartearen goiko klaseei egiten zieten kritika. Antzera, laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran **britpop**-a sortu zen, langile-klasearen ahotsa ozen entzunarazi eta etorkizun hobe batekin amets egiten zuena.



BANKARIAK. ZORRAREN MEKANISMOA. JOLASA



sailekoak izango dira; eta, hirugarren taldekoak banku etiko bat izango dira. Gainerako ikasleak hiruzpalau laguneko taldetan banatuko dira, eta familien ordezkariak izango dira. **Excel**, batean, irakasleak diru-sarrerak (nomina edo antzekoak) eta gastuak (alokairua, hipoteka, hornidurak, elikagaiak, zergak, etab.) adieraziko ditu. Familiak ez dira hilabete bukaerara iristen, eta kreditu bat eskatu behar dute urtea pasatzeko. Aipatutako hiru entitateetara joko dute, aztertuko dute nolako interesak eskaintzen dituzten eta kalkulatu dute eskatutakoa baino zenbat diru gehiago itzuli beharko lioketen mailegu-emaile bakoitzari.



HELBURUA

Batzuetan, pobreziaren zirkulua hausteko, beharrezkoa da maileguak eskatzea, baina interesek inoiz ez lukete izan behar zirkulu horretatik ateratzea eragozteko bezain altuak.



IDEIA NAGUSIAK

Banku etikoa eta interes justuak.



BALIABIDEAK

Monopoly jokoaren billeteak edo ikasleek egindako beste batzuk; kalkulagailuak; ordenagailuak eta Excel edo antzeko programaren bat.



GARAPENA

Matematikako klasean, ikastaldea hainbat multzotan banatuko da. Multzo bat mailegu-emaileena izango da, eta hiru azpitalde izango ditu: batzuk maileguak eta kredituak interes-tasa oso altuarekin eskaintzen dituzten finantza-erakundeak izango dira; beste batzuk banketxe bateko mailegu eta kredituen



GEHIAGO

Debatea egingo dute aztertzeko ea, pobreziaren zirkulutik ateratzeko, zer egin dezaketen horrelako mailegu eta kredituak eskatu behar dituzten klase sozial baxuko familiarik pobreenek, eta konponbideak proposatuko dituzte.



ETXEAN

Gurasoei galdetuko diete ea baduten edo izan duten horrelako kreditu edo hipotekarik; kalkulatu dute interesetan zenbat ordaintzen duten edo ordaindu behar izan duten, eta baita ere zenbatekoa izan zen eskatutakoaz gainerako gastua. Zenbat diru eskaini behar izan zioten maileguari eta zenbat geratzen zitzaizen bizitzeko? Zer gertatuko zatekeen lanik izan ez balute? Kasu batzuetan, **hipoteka-mailegu** handiez ari garela, zifra harrigarriak aterako zaizkigu.

NOLAKOA IZANGO LITZATEKE NIRE BIZITZA HAN?



HELBURUA

Informazio objektiboa bilatzea beste pertsona baten azalean jartzeko modu enpatiko eta, aldi berean, objektibo batean.



IDEIA NAGUSIAK

Datu eta estatistika objektiboak, eguneratuak eta kontrastatuak bilatzea; gure bizitza beste zirkunstantzia ekonomiko eta sozial batzuetan irudikatzea.



BALIABIDEAK

Ordenagailua eta Interneterako konexioa.



GARAPENA

Gaztelaniako klasean, irakasleak biografia dokumentatu bat egiteko eskatuko die: bakoitzak bere burua protagonista jarrita, kontatuko dute nolakoa izango zatekeen bere bizitza beste herrialde, auzo edo familia batean eta egoera ekonomiko zail batean jaio izan balira. Ez da fikziozko kontakizuna izango: lanak **ondo dokumentatuta** egon behar du, eta dokumentazioa ere aurkeztu behar dute, lanaren iturri gisa (bibliografia edo **webgrafia**). Aukeratu duten herrialdea pobrea bada, hango bizi-baldintzen berri emango dute: haurrak eskolara joaten diren eta zenbat urtera arte; zer jaten duten; nola janzten diren; nolako etxean dituzten; familia batek zer diru-sarrera dituen, etab. Gure herrialdeko hiri bateko auzo pobre bat aukeratu badute, berdin aurkitu behar dute informazioa: langabezia- eta pobrezia-indizeak, eskola-porrotaren zifrak, gazteen delinkuentziaren zenbatekoa, etab. Behin informazio guztia bilduta, forma emango diote pertsonaiari eta hasiera kontakizunari.





GEHIAGO

Bilaketa- eta dokumentazio-lana bukatzen dutenean, kontakizunean sakonduta, eleberri laburra edo bloga egingo dute. Hilean behin, atal labur bat erantsiko diote. Ezezagunak zaizkien alderdi eta datuei buruzko informazioa bilatzen jarraituko dute.

ETXEAN

Gogoeta-ariketa egin dezake familiak, eta irudikatu nolako izango litzatekeen haien bizitza 400 bat euroko subsidioarekin —hori baita, oro har, **diru-sarrerarik gabeko familientzako** diru-laguntza—; nola iritsiko liratekeen hilabete bukaerara, zer etxebizitza edukitzeko aukera izango luketen, zer jango luketen, zenbat gauzari egin beharko lioketen uko helduek zein gaztetxoek, etab.

ARAZOAK HANDITU EGITEN DIRA: POBREZIAREN ZIRKULUA



HELBURUA

Hausnartzea zergatik den hain zaila pobreziaren zirkulutik ateratzea; ulertzea beti ez dagoela gure esku, eta “nahi izatea aski da” dioen esaera ez dela egia.



IDEIA NAGUSIAK

Objektiboak, enpatikoak, ulerkorak, errealistak eta pragmatikoak izatea.



BALIABIDEAK

Hainbat koloretako kartulinak, errotulagailuak, guraizeak, etab.



GARAPENA

Tutoretzako klasean, antolatu “pobreziaren zirkulua (edo zikloa)”; antzezteko role play ariketa bat; kartulinak hartu eta zirkulutan ebakita, idatzi horietako bakoitzean pobrezia-egoerak dituen estadioetako baten izena: eskolatze txikia, lan egiteko aukera urriak, langabezia, bizi-kalitate eskasa, etab. Ikasleak taldeka jarriko dira eta zirkuluen inguruan eseriko dira: jarri diren zirkulu bakoitzaren estadioari konponbidea emateko ideiak proposatuko dituzte. Adibidez, “eskolatze txikia” izenekoan badaude, proposamenak hauek izan daitezke: inbertsio handiagoa eskola publikoetan, garraio publikorako dirulaguntzak, pizgarri ekonomikoak oinarritzko eskolatzea bukatzen duten gaztetxoentzat, etab. Taldeko besteak ados ez badaude, proposamenaren inguruan eztabaidatuko dute. Banan-

banan eta txandaka, erlojuaren orratzen norantzan, ideiak emango dituzte dauden zirkulu horretatik ateratzeko. Beste inork aurretik esan gabeko ideia ematen duenak zirkulutik ateratzeko baimena lortuko du, eta lekua dagoen beste zirkulu batean sartuko da. Horrela, denek ateratzea lortzen dutenean, zirkulua hautsizat emango da, eta jolasaren helburua beteta geldituko da.



GEHIAGO

Onarpen osoa eduki eta zuzenketa beharrik izan ez duten proposamenak arbelean edo horma-irudi batean idatziko dira, xeheago garatu eta sakondu ahal izateko.



ETXEAN

Etxekoek, elkarrekin, “pobreziaren zirkulua” atzean utzi nahian eta bizia arriskuan jarri, jatorrizko herrialdea utzi behar izan duten errefuxiatuei buruzko filmak ikusiko dituzte: *Balseros*, *In This World*, *El Viaje Silencioso*, etc.



POBREZIAREN MENUA



HELBURUA

Pobrezian bizitzea zer den ulertzea, adibidez, hain oinarritzkoa den elikaduraren bitartez.



IDEIA NAGUSIAK

Besteen azalean jartzea, ekonomiari begiratzea eta aukerarik osasungarriena egitea.



BALIABIDEAK

Ikasleek euro bana jarriko dute, eta sukalde txiki bat atonduko dute egun batean elkarrekin gosaltzeko eta bazkaltzeko ikasgelan.



GARAPENA

Egoera pixkanaka hobera egiten ari den arren, gaur egun oraindik ehunka mila pertsona bizi dira munduan **egunean jateko euro bat** baino ez dutela; seguruenik ikasleak ez dira jabetzen zer esan nahi duen horrek, baina, espermentatuz gero, berehala ulertuko dute. Irakaslearekin batera, ikaskide guztientzako gosari, bazkari eta afari bat pentsatuko dute. Guztiek gauza bera jango dute, eta bakoitzak euro bat jarriko du. Zer jan eta eros dezakete 25 euroekin guztientzako hiruna otordu egiteko? Erostera joan aurretik, kontuak egingo dituzte ikasgelan. Diru horrekin izango dute haragi edo arrain freskoa erosterik? Eta janari prestatua? **Izango dute lehenengo eta bigarren platera jateko aukera?** Zer fruta eros dezakete, erosterik badaukate? Irakasleak laguntza emango die eta aholkuak bilatuko dituzte **interneten**. Hortik aurrera, ariketak izaera teorikoa edo praktikoa izan dezake: teorikoa bada, Interneten kontsultatuko dute ea aukeratutako produktuek zer prezio duten egiazko supermerkatuetan. Izaera praktikoa badu, taldeak egingo dituzte planifikatzeko (prezioak kontsultatuz), erosteko eta janaria prestatzeko hurrengo asteko egun batean. Aurrekontua hain murrizta izateak nola eragiten duen aztertu beharko dute.





ETXEAN

Ikasgelan egindako esperimendua etxean egingo dute; nahiz eta gurasoek merkatuko eta supermerkatuko prezioak ezagutu, ziur inoiz ez dutela pentsatu nola bizi daitekeen **egunean, pertsonako, euro bakarra edukita**. Asteburuan egingo dute proba: denen artean pentsatuko dute zer janari prestatu aurrekontu horrekin, eta ahalik eta elikagarriena izan dadila.

GEHIAGO

Jardueraren bertsio praktikoa aukeratu badugu, gogobetetasun-inkesta egin daiteke: janari nahikoa izan zuten? Goseak geratu ziren? Janaria gustatu zitzaien? Jateko ona zen? Orekatua? Gazteen kasuan, posible ote da osasuntsu jatea eta haztea hain aurrekontu murriztarekin? Erantzunak bilduta, bigarren **menu-aukera** bat egiten saiatuko dira, prezio berean baina kalitatea, kantitatea eta gogobetetze-maila hobetuta.

TORI, ZURETZAT: INORK EZ DEZALA EZER FALTA



HELBURUA

Gure hurbilekoek dituzten premiei adi egotea, izan indibidualak izan kolektiboak, ahal den guztian laguntzeko.



IDEIA NAGUSIAK

Arretatsu eta erne egotea, gure hurbilekoek behar izanez gero, prest egon gaitzen laguntza ekonomikoa emateko edo gure denbora eta gaitasunak eskaintzeko.



BALIABIDEAK

Internet konexioa duten mugikorrak edo ordenagailuak.



GARAPENA

Ikastetxeko irakasle eta ikasketaburuen laguntzaz, talde bat sortuko dute Whatsappen Bigarren Hezkuntzako ikastaldeen ordezkariekin eta Batxilergokoekin (ikastetxean bertan eskaintzen bada). Whatsapp taldearen funtzioaizangodapremiak komunikatzea, bai ikastetxearen instituzioaren barruan izan daitezkeenak, bai herriko edo hiriko beste ikastetxe batzuetako familienak, gure ikastetxekoak diru estutasunik gabeko familiek baldin badira. Ordezkariak ikaskide guztiak jakinaren gainean jartzen dituzte, denen artean premia horiek asetzeko proposamenak eta konponbide-aukerak aurkeztuko dituzte. Guztiek hartuko dute parte bilera solidario horietan, eta guztiek emango dituzte ideiak, adibidez: dohaintza ekonomikoak egitea (txikiak

izanik ere, ez du inporta, dena gehitzea baita), egoera onean eta berrerabiltzeko moduan dauden objektu eta materialak ematea, sor daitezkeen gauzen ideiak eskaintzea, enpresa babesleak bilatzea (ikastetxeko familiak, hurbileko dendak, udaleko enpresak...), etab.



GEHIAGO

Ordezkariak harremanetan jar daitezke **“Tienes sal”** edo **“Next Door”**, bezalako laguntza kolektiborako plataformekin: herriko edo hiriko auzo bateko bizilagunen elkartasun-sareak dira, Internet bidezkoak. Institutu gisa, guk ere bat egin dezakegu haien egitasmoarekin.



ETXEAN

Ikasleak bizi diren lekuaren arabera, Whatsapp talde bat egin daiteke, kaleko auzokideen artean herri batean bizi badira, edo ezkaratzeko bizilagunekin eraikin handi batean bizi badira; helburua da konektatuta egotea, solidarioak izatea eta elkarri ahal den gehiena laguntzea.





POBREZIA ETA COVID-19A

COVID-19aren ondorioz 2020ko aurreneko hiruhilekoan hasi zen pandemiak, lehen aldiz historian, planetako biztanleriaren zati handi bat asteetan zehar etxean konfinatuta egotera behartu zuen, birusaren kutsatze-erritmoa geraraziko bazen. Konfinamendua guztiz beharrezkoa izan zen birusaren hedatzea, heriotzak eta ospitaleen kolapsoa gutxitzeko.

Konfinamendua dela eta, **ekonomiak kalte handia izan du albo-ondorio gisa.** Gure herrialdean, adibidez, langabeziak % 20 baino gehiago egin du gora, eta gazteen artean % 50era ere iritsi da igoera. Horrek ekarri du pandemiaren aurretik oso kezagarriak ziren haur eta gazteen pobrezia zifra orain are dramatikoagoak izatea. Horregatik, horrelako muturreko arrisku-egoeretan, adi eta erne egon behar dugu gizarte-bazterketan erortzeko arriskuan dauden familia eta ikaskideei laguntzeko, eta elkartasuna bihurtu behar dugu ikasgelako balio nagusietako bat.

JARDUERA PROPOSAMENA

Pentsa ezazue konfinamenduaren garaitik hona zer premia berri sortu diren eta zer garrantzia hartu duten, bai produktuez, bai zerbitzu edo lanbidez ari garela. Etxera eramateko zerbitzuak, online eskaintzen direnak eta urrunekoak, higiene- eta desinfekzio-produktuak, etab. Parametro horien arabera, imajina ezazue zeuen burua etorkizunean enpresa bat sortzen edo lanbide bat aukeratzen.

DESBERDINTASUNAK GAINDITZEKO JAUZI BAT

10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA





DESBERDINTASUNAK GAINDITZEKO JAUZI BAT

Bai gure herrialdean bai planeta osoan, **desberdintasun** sozialak eta ekonomikoak errealitatearen parte dira. Ondorioz, zenbait etxe eta herrialdetan ekonomia eta garapen-maila ez dira iristen elikaduran, osasungintzan, etxebizitzan, hezkuntzan, etab. gutxienekoa bermatzera.

Begira diezaiogun mundu mailako desberdintasunen lagin bati: Nazio Batuen eta Unicefen datuen arabera, Afrikako hainbat herrialdetan, adibidez Sudanen, Somalian edo Txaden, haurren heriotza-tasa % 10etik gorakoa da, herrialde garatuenetan % 2koa delarik; Afrikako herrialde horietan ere, 2 gaztetik ia 1 analfabetoa da, alegia, ez daki irakurtzen edo idazten; badira genero-desberdintasunak ere, 18 urtetik beherako 650 milioi neska adingabeko daude ezkontuta obligazioz, eta munduan 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 21 ezkontzera derrigortu dituzte, askotan senarra alde aurretik ezagutu ere egin gabe.

Demagun ez dakizuela irakurtzen edo idazten... Nolakoa izango litzateke zuen bizitza? Zer muga izango zenituzkete? Zer lan egiteko aukera izango zenukete? Argi eta garbi, askoz aukera gutxiago izango zenituzkete, zentzu guztietan, maila pertsonalean eta profesionalean aurrera egiteko, eta baita hain oinarrizkoak diren irakurketaz eta komunikazio idatziaz gozatzeko ere. Eta neska bazara, egin kontu: ikasteari utzi behar diozu ezkondu behar duzulako, senarra aukeratuko dizute eta ezarri, zure onespene gabe; ezkondu eta etxeoandre izatera derrigortuko zaituzte, iritzia emateko aukerarik gabe. Seguru beste garai bateko istorioa

iruditzen zaizuela, beste mende batekoa. Baina ez da horrela, zoritxarrez. Leku askotan egunero gertatzen diren kontuak dira, gure herrialdea barne, eta errealitate erosoagoetatik oso hurbil daude.

Gure inguruko familia batzuek oinarrizko errenta jasotzen dute, hilabete bukaerara iristeko arazoak izaten dituzte, eta kosta egiten zaie bizitzeko ezinbestekoak diren hornidurak ordaintzea, familiarentzako elikadura egokia eskuratzea, seme-alaben goi-mailako ikasketak ordaintzea, etab. **Berdintasun eza** nonahi dago, gizarte guztietan, eta haurtzaroaren eta gazteriaren printzipio eta oinarrizko eskubideen aurka egiten du. Elkarrekin aritu eta solidarioak izan behar dugu desberdintasunak, izan txikiak izan izugarriak, desagerrarazteko. Ezin dugu amore eman zeregina handia izanagatik. Elkarrekin mendiak ere mugitzeko gai gara.

DENOK EGITEN DUGU... BAINA BERDIN EZ



GARAPENA

Munduko familiek bizi dituzten errealitateak erakusteko argazkiak bildu behar dira. Eguneko jardura ohikoak aztertuko dituzte: non egiten duten lo, zer arropa janzten duten, zer jaten duten, nola prestatzen duten jatekoa, etxean argirik eta urik baduten, lokomozio-moduak, etab. Erreferentzia gisa, Hans Rosling-en **Factfulness**, liburura jo dezakete. Liburuan munduko herrialdeak lau multzotan sailkatzen ditu egileak, besteak beste, ekonomiaren arabera, eta ihes egiten dio ohikoa eta sinplista den bi multzo bakarreko sailkapenari, hau da, “herrialde garatuak” eta “herrialde azpigaratuak”.



GEHIAGO

Bildutako argazkietatik abiatuta, ikasle bakoitzak testu bat idatziko du hausnartuz zergatik zaien hain zaila gutxiago garatutako herrialdeei “pobreziaren zirkulutik” beren kasa ateratzea, laguntzarik eta ekimen solidariorik gabe.



ETXEAN

Familia-argazki zaharrak bilatuko dituzte; haietan ikusiko dute nola aldatu den dena: bizitzeko lekuak, autoak, ospakizunak, etab. Xehetasunei ere erreparatuko diegu, eta hori guztia kontuan hartuta, ondorioak aterako ditugu. .



HELBURUA

Gure errealitatea ez da ez bakarra, ez biztanle gehienena; hori ulertzeko, gurea ez bezalako errealitateei buruzko informazioa bilatzea.



IDEIA NAGUSIAK

Informazioa lortzea irudien bitartez; aztertzea, hausnartzea eta ulertzea zergatik leku batzuetan gauzak era batera egiten diren eta, beste batzuetan, beste era batera.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak, Internetarako konexioa, aldizkariak, liburu ilustratuak, etab.

KALEKO UMEEN ISTORIOAK



HELBURUA

Ikasleek beren antzekoak diren arren egoera ekonomiko zailago eta askoz prekarioagoetan (eta, askotan, kale gorrian) bizi diren gaztetxoek errelatoak irakurriko dituzte, lehen pertsonan idatziak.



IDEIA NAGUSIAK

Istorioren errealen bitartez, empatia sentitzea; oso bestelako baldintzetan bizi diren adin bereko gazteen azalean eta pentsatzeko erantzutzea.



BALIABIDEAK

Liburuak, filmak, ordenagailuak, Internetarako konexioa.



GARAPENA

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela esaten da, baina ez da horrela; irudi batek oso mezu indartsua adieraz dezake; baina hitzek xehetasunak eskaintzen dizkigute, deskribatu egiten dute fisikoa dena eta etereo dena, sentitzen duguna, pentsatzen duguna eta amesten duguna; hori dela eta, tutoreak ikasleei proposatuko die irakurketa batzuk egitea edo film batzuk ikustea pobrezia-egoeran dauden gaztetxoei buruz. Oraingo edo beste garai bateko liburu eta filmak izan daitezke: *Ladri di biciclette (Ladrón de bicicletas)*, *Oliver Twist*, *Angela's Ashes (Las cenizas de Angela)*, *Cidade de Deus*, *Slumdog Millionaire*, etab.



GEHIAGO

Liburu eta film gehienek beste herrialde batzuetako gazteen pobrezia-istorioak kontatzen dituzte; bila dezatela informazioa **gure hirietako kaleetan bizi diren nerabeen indizeaz eta pobrezia-indizeaz.**



ETXEAN

Gurasoekin kalean eta pobrezian bizi diren pertsonak protagonista dituzten filmak ikusiko dituzte. Bukatzean, etxekoan artean komentatuko dute nola sentitzen diren egoera horretan bizi diren pertsonen aurrean: empatiaz jokatzeko dute? Lotsa sentitzen dute haiek ikustean? Edo ezikusiarrena egin eta ikusezin bihurtu dituzte?



ATERPE BILA



HELBURUA

Ulertzea historiako hainbat gertakarik, adibidez, hondamendi klimatiko batek edo gerra batek, familiak eta gazteak ohiko bizimodua egitetik biziraupen-egoera batera eraman ditzakeela.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak eta Internetarako konexioa.



GARAPENA

Geografia eta Historiako klasean, **prentsa nazionalean e inazioartekoan** hainbat arrazoik eragindako errefuxiatuei buruz argitaratuko artikulua bilduko dituzte: gerrak, jatorri desberdinekoen arteko gatazka belikoak, hondamendi klimatikoak, etab. Azken urteotan, adibidez, Siriako gerrak ehunka mila pertsonaren lekualdatzea eragin du, eta horrek Siriak mugakide dituen herrialdeetan ere izan ditu ondorioak; Latinoamerikan ere etenik gabekoak dira desplazamenduak Estatu Batuetara eta Kanadara, motibo ekonomikoengatik eta mafiek eragindako segurtasun faltarengatik; Ukrainako errefuxiatuek Errusiara egiten dute alde 2014an herrialde osoan izandako gerragatik, etab. Saia daitezela, bereziki, haur eta nerabe errefuxiatuei buruzko informazioa aurkitzen, asko direlako eta babesgabetasunaren, gehiegikeriaren eta tratu txarren biktima direlako.



IDEIA NAGUSIAK

Gauzek ez dute beti berdin irauten; zenbait egoera gure kontroletik eta ulermenetik kanpo daude, eta edonori gerta dakioke horrelako zerbait bizitzea. Horrelaxe daude munduan milaka errefuxiatu, eta haien ehuneko handi bat haurrak dira.



GEHIAGO

Galdetu ikasleei haien artean baden errefuxiatuak edo jatorrizko herrialdeetik familiarekin baldintza zailetan migratu behar izan duenik, eta, bestela, hurbileko senideren baten kasuak ere balioko du. Nahi izatera, pertsona horrek bere esperientzia konta dezake errefuxiatuei laguntzeko ikastetxeak antolatutako ekitaldi solidario batean. Aldeas Infantiles SOSek azken urteotan haur errefuxiatuei laguntzeko ekintzen berri izatea gomendatzen dizuegu, eta horretarako **gure albisteetako batzuk irakur** ditzakezue.

ETXEAN

Asteburuko albisteak elkarrekin, familian, ikusteko ohitura ezar daiteke; sarritan errefuxiatuei buruzko berriak izaten dira ikusgai. Ondoren, entzundakoari buruzko informazio gehiago bilatuko dute, eta, ahal izanez gero, errefuxiatuekin kolaboratzen eta haien nolabait laguntzen saiatuko dira.

ESKAINI ZEURE BURUA LAGUNTZEKO



HELBURUA

Laguntza ematea ez bakarrik gure familiari eta atsegin ditugun lagunei, baizik eta baita hain ezagunak ez ditugunei eta tratu handirik ez dugun ikaskideei ere.



IDEIA NAGUSIAK

Laguntasuna, elkartasuna, eskuza-baltasuna eta **senidetasuna**.



BALIABIDEAK

Kartulinak, guraizeak, arkatzak, boligrafoak, arkatzak, ordenagailuak, mugikorrak, liburuak, gimnasioko esterak, etab.



GARAPENA

Tutoretzako klasean, ikasle bakoitzak bi txartel ebakiko ditu denentzat izango den kartulina batetik. Txartel batean, ikasleak bost ikaskideren izenak idatzi behar ditu: norekin daukan harreman gutxiena, nor ezagutzen dituen gutxien, edo nor ezagutu nahi lituzkeen hobeto. Beste txartelean, idatziko du eskolako zer bost gauzatan eskertuko lukeen laguntza: kontu akademikoak, akademikoak ez direnak, hobekuntza pertsonala... Astero, tutoretzako orduan, harreman gutxiena duen bost ikaskideetako batek laguntza emango dio zailak egiten zaizkion gauzen zerrendako bat egiten. Eskatutako hori egiteko beharrezko trebetasunak ez baditu, bere **adimen motari**, hobeto egokitzen zaizkion

beste gauza eskaini ditzake, horietan ederki moldatzeaz gain, besteak gustura hartuko baititu.





GEHIAGO

Laguntza pertsonalizatzeko beharrik gabe, **elkartasun-funts** bat egin daiteke, ikastetxean benetako premia duenak beka antzeko bat izan dezan. Ideia ez da nahitaez norbaiti esleitzea, baizik eta aldian behingo bilketak eginez edo urteko kuota txiki bat jarriz (urtean 5 euro ikasleko, adibidez), dirua gordetzea eta pilatzea egiaz behar denerako. Eskola Kontseilua izan daiteke balizko hautagaiak baloratzeko eta laguntza nori esleitu erabakitzeko batzordea.

ETXEAN

Gurasoak animatuko ditugu institutuko **guraso-elkartean**, komunitateko etxe-jabeen batzarrean, auzo-elkartean eta antzekoetan parte hartzera. Askotan nagi izaten dira talde horietan parte hartzeko ez dugulako jendea ezagutzen, baina ahalegin bat eginez gero, entitateei laguntza emateaz gain, beste pertsona batzuk eta beste harreman-aukera batzuk sortuko zaizkie. Gainera, azkenaldian bizitakoa bezalako premiazko egoeretan, garrantzitsua da auzokideen arteko sarea ehuntzea elkarri laguntzeko.

GIZALEGEZKO KONPONBIDE BAT



HELBURUA

Besteen aurrean eredu izan, hezibide onez eta gizalegez jokatzuz; besteak animatzea haiek ere berdin joka dezaten.



IDEIA NAGUSIAK

Hezibide onekoa izatea, eredu izatea, adineko pertsoneri edo gure laguntza behar dutenei elkartasuna adieraztea, zentzuz jokatzeko, etab.



BALIABIDEAK

Zuen asmo onak gogorarazteko **Ikono esanguratsuak**, ikasgela apainduko duten karteletan jartzeko.



GARAPENA

Gizalegezko jokabidea praktikan jartzeko, ekintza kolektibo bat egingo dute institututik kanpo: autobusean edo metroan, adineko pertsonaren bat, desgaitasuna duen pertsonaren bat edo haurdun dagoen emakumeren bat badago zutik edo, besterik gabe, norbaitek nekatu itxura badu eta eseri beharra badauka, ikasleek eserlekua utziko diete; kalean ere aurretik pasatzen utziko diete, ate bat irekitzean, bisitatzeko leku batean ilara luzea dagoenean, katalogo informatizatuan bilaketa bat egin behar dutenean, apaletan liburu edo aldizkariren bat aurkitu nahian dabiltzanean, etab. Dударik gabe, eskertuko dute. Ikasgelan, ikasleek azalduko dute nola sentitu diren, nola erantzun zuten laguntza jaso zutenek, eta haien azalean jartzen jakin zuten edo jabetzen diren egunen batean horrelako laguntzak jasotzeko premian egon daitezkeela.





GEHIAGO

Modu eredugarrian jokatzear gain, besteak “gonbida” daitezke, jendetasunez, horrela jokatzera, ezikusiarrena egin gabe. Autobusean gazte batek ez badio adineko bati lekua uzten mugikorrari begira doalako, esan egingo diogu zuzen joka dezan; gauza bera medikuaren itxarongelan edo okindegiko ilaran. Jendeari jendetasunez eskatzen badiogu adeitsu jokatzeko, seguru ez dela arazorik izango.

ETXEAN

Familiak ere jendetasunez jokatu behar du, eta eredu izan gizalegezko jokabidean: denak **autoan** doazenean, bereziki arretatsuak izango dira adinekoekin, desgaitasuna duten pertsonekin edo gidari hasiberriekin; adineko bizilagunei erosketa eramaten lagunduko diete; kalean ikuskizunen bat dagoenean, txikienei aurrera pasatzen utziko diete hobeto ikus dezaten, etab. Jokabide zibikoagoa badugu, hobe izango da elkarbizitza.

DESBERDINTASUNAK GAINDITZEKO HITZAK



HELBURUA

Pertsonaia ospetsuek nahiz anonimoek gizarte hobe eta solidarioago baten alde idatzitako edo egindako aipu eta **esaldi ospetsuetan** inspiratzea.



IDEIA NAGUSIAK

Aipuak biltzea, arretaz irakurtzea, gogoeta egitea, barneratzea eta nork bere egitea.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak, Interneterako konexioa, mugikorrak, enbalatzeko paper-biribilkia, punta lodiko errotulagailuak, margotzeko espraiak, etab.



GARAPENA

Plastikan edo Literaturan, pertsonaia ezagun edo anonimoek egindako **aipuak** bilatzera gonbidatuko ditugu ikasleak, sortu zituztenek pertsonak eta mundua hobetzeko akuilu lana egin zezaten sortu baitzituzten. Ehunka dira, haietako batzuk oso egile ezaguna dutenak; adibidez, John Lennon, Mahatma Gandhi, Martin Luther King,

Paulo Coelho, etab., beste askoren artean. Bila dezatela gogoko dituzten abeslarien hitzetan ere. Pertsona hobeak izateko inspirazio-iturri diren aipu eta esaldiekin orrialde bat zabalduko dute Facebooken, eta denek izango dute aukera han idazteko gehien gustatzen zaizkienak edo akuilu gisa egokienak iruditu zaizkienak, errepikatu gabe. Ariketa hau eta aurkitutako esaldiak gustuko badituzte, erabaki daiteke, hiruhileko honetan zehar, **beste irakasgaietako lanetan** pertsonaia famaturen baten aipua txertatzea, ikasi dutenaren espiritua jasoz.



GEHIAGO

Ikastetxean lekurik baldin badago, arrakasta handiena edo mezu sakonena duten aipuak aukeratu eta enbalatzeko paperean egindako horma-irudi batean jar ditzakete; beste aukera bat da, ikasleren bat trebea bada grafitiak egiten eta ikastetxean baimenduta badago, hormaren bat espraz margotzea.



ETXEAN

Aipu edo esaldi mitiko horietako batzuk une edo egoera berezietan sortuak dira: Vietnamgo gerra, independentziaren aldeko borroka baketsua Indian, eskubide-berdintasunaren aldeko borroka arraza edozein dela ere, etab. Familian, une historiko horien inguruko informazioa bilatuko dute.



AUZOKO DENDAK



BALIABIDEAK

Ordenadores, conexión a internet, móviles, etc.



GARAPENA

Ikasle guztiek entzuna izango dute noizbait **saltoki txikiak** desagertzera doazela **saltoki handiak** direla eta. Baina pentsatu al dute inoiz zergatik entzuten den hori gero eta sarriago? Aurreikuspena egia bihurtzen ari ote da? Informazioa bilatu behar dute saltoki txikien fakturazioaz, prezioez, eskaintzaz, etab. eta beste hainbeste saltoki handiei buruz. Era berean, saltoki txiki bat kalean irekitzeak edo merkataritza-gune batean irekitzeak daukan gastuari buruzko informazioa eskuratu behar dute, irekierarako orduen soldatak kontuan hartuta. Ez badute saltoki txikien inguruko daturik aurkitzen, kalera atera daitezke eta, zuzenean, saltzaileei galdetu eta erantzunak mugikorrarekin grabatu. Behin informazio guztia jasota, Excel batean sartuko dute. Zer ondorio atera daiteke azterketa konparatibotik? Zer enpresak dute merkataritza-gune batean egoteko ahalmena eta zer konpentsazio jasotzen dituzte horregatik? Excel bat egingo dute datu guztiekin, eta taldean partekatuko dute denen artean osatzeko.



HELBURUA

Auzoko edo herriko betiko dendei eta saltoki handiei buruzko estatistikak eta **informazioa bilatzea**; datuak ikusita, saltoki guztiek baldintza beretan lehiatzen diren edo egiazko berdintasun eza dagoen aztertzea.



IDEIA NAGUSIAK

Informazioa eskuratzeko, konparatzeko, ondorioak ateratzeko eta ekintzak proposatzeko saltoki txikiek baldintza beretan aritzeko aukera izan dezaten.



GEHIAGO

Saltoki txikietan erostea sustatzeko, publizitate-kanpaina bat egingo dute alderdirik positiboenak azpimarratuz: **0 km-ko**, produktuak edo hurbileko produktuak, tratu gertukoa eta adeitsua, enkarguak egiteko aukera, supermerkatuan egoten ez diren produktuak eskatzeko aukera, etab.



ETXEAN

Familiak konpromisoa hartuko du etxeko erosketaren % 50 auzoko edo herriko saltoki txikietan egiteko; horrela, laguntza emango diegu bizirik iraun dezaten.

BA OTE DUT AURREIRITZIRIK?



HELBURUA

Galdetegi bat betez, gogoeta egitea ea badugun aurreiritzi sozialik, erlijiosorik, ekonomikorik, edo arrazarekin nahiz generoarekin lotutakorik. Batzuetan, galdera abstraktuak ez dute benetan erakusten nolakoak garen eta nola jokutzen dugun.



IDEIA NAGUSIAK

Erantzun laburreko galdera zehatz eta deskriptiboak eginez, emaitza argiak eta objektiboak lortzea. **Aurreiritziak eta estereotipoak** gizarte-bazterketaren adie-azpen gisa ulertzea.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak, Interneterako konexioa eta **Google Forms** programa.



GARAPENA

Jarduerari ekin aurretik, tutoreak ikasleei galdera hauek egingo dizkie: **arrazista** zara? **Homóforo** zara? Nahiago duzu pobrezian bizi diren pertsonekin harremanik ez izan? **Matxista** zara? Zurea ez bezalako erlijioa dutenak ez dituzu gogoko?, etab. Ziurrenik, erantzun gehienak ezezkoak izango dira (galdetegia izenik eman gabe ere erantzun daiteke); hain zuzen ere, ikasle eta pertsona gehienek, politikoki zuzena zer den ederki jakiteaz gain, pentsatzen dute ez dutela inolako aurreiritzirik ez arrazarekin, ez sexuarekin, ez klase sozialarekin, etab.

Baina **praktikan**, nahiz eta haiei ezetz iruditu, hori ez da beti horrela izaten, zenbait aurreiritzi aspalditik baitaude gure gizartean eta izateko eran txertatuta, eta ez da erraza konturatzea eta ezabatzea. Aurreiritziak detektatzeko, **test on bat** egin eta jarriko dugu Google Driven, denek erantzun dezaten: ikasleek, familieek, irakasleek, etab. Testa ikasleek prestatuko dute, galdera oso zehatzak formulatuz: gizonak emakumeak baino azkarragoak direla uste duzu? Emakumeek seme-alabak hobeto zaintzen dituztela iruditzen zaizu? Bi neska edo bi mutil jendaurrean elkar musukatzen ikusteak gogaitzen zaitu, baina neska-mutilak direnean ez?





Metroan edo autobusean zoazela behartsu bat zure ondoan esertzeak gogaitzen zaitu? Barregarriak iruditzen zaizkizu beste herrialde batzuetako pertsonen janzkerak? Zenbait ohitura erlijioso ez zaizkizu ulergarriak egiten, adibidez, baraua egitea edo belauniko ibiltzea promesa bat betetzeko?, etab. Erantzun guztiak prest daudenean, kodifikatu egin behar dira eta ondorioak atera.

GEHIAGO

Zerrenda bat egin daiteke jakiteko zein diren **aurreiritzirik ohikoenak** adibidez, eta ez bereizten gaituzten gauzetan? Eta sexuaz, arrazaz edo erlijioaz **batzen gaituen horretan**, adibidez, eta ez bereizten gaituzten gauzetan? Eta sexuaz, arrazaz edo erlijioaz **aurrez ezarritako ideiak** hautsiko bagenitu? Ez du zertan mingarri izan inorentzat.

ETXEAN

Etxeke guztiak ikasgelan prestatutako inkesta beteko dute, eta, gero, erantzunak partekatuko dituzte; erantzunaren arabera, norberak azalduko du zergatik sentitzen den horrela, eta zer egin dezakeen aurreiritzi eta estereotipoak ezabatzen ikasteko. Halaber, interesgarria da aztertzea zein diren **nerabezaroari buruzko aurreiritziak**, eta baita nerabeei buruzkoak ere, norberaren bizipenetik gezurtatu ahal izateko.

KAUSA ETA ONDORIOA. EKINTZA ETA ERANTZUNA



HELBURUA

Edozein kausak ondorio bat dakarrela eta “kausa” kaltegarria bada, ondorioa ere horrelakoxea izango dela ulertzea; behar-beharrezkoa da harreman-kate hori ekiditeko mobilizatzea.



IDEIA NAGUSIAK

Kausa-ondorioa, ekintza-erreakzioa; **causas de los conflictos sociales**, gertaerak eta ondorioak.



BALIABIDEAK

Kartulinak, guraizeak, boligrafoak, arkatzak, errotulagailuak, etab.



GARAPENA

Tutorearen laguntzaz, taldeka, karta-joko bat prestatuko dute: karta bakoitzak pertsonen artean berdintasun eza eragiten duen ekintza bat ordezkatzeko du: “ez daukat jatekorik”, “ez daukat etxerik”, “ezin naiz eskolara joan, txikia izan arren lan egin behar dut eta”, “ez didate txertorik jartzen”, “ez dut kalitatezko osasungintza publikoaren arreta jasotzerik”, etab. Talde bakoitzak paper batean idatziko du zer erreakzio eragingo duen maila indibidualean eta taldean nahiz maila sozialean, eta zer ondorio izango dituen guztion bizitzetan. Adibidez, gaztetxo bati txertorik jartzen ez badiote, dagoeneko kontrolpean dauden gaixotasun batekin kutsa daiteke eta, azkenean, asko badira txertorik jasotzen ez dutenak,

txertatuta daudenak kutsatzera ere irits litezke, gaixotasunaren mutazioak direla eta. Pertsona batek ez badu lanik, orduan... asko badira lanik gabe daudenak... Pertsona bat indarkeriaren biktima bada,... biktimak pertsona asko badira... Gogoetaren berri emateko, argazki adierazgarrien galeria bat erakutsiko dute: argazkietan ikasleak agertuko dira, aipatutako rola jokatzeko eta ekintzen ondorioak antzezten. Hortik aurrera, erakusketa bat egin daiteke, ikastetxeko webgunerako irudi-galeria bat, bideo-muntaketa bat...



GEHIAGO

Proposamen bat pentsatuko dute “ekintza” negatiboa desagertzeko eta, modu horretan, denok lortuko dugu onura; berdintasun eza gizarte osoaren arazoa da, ez bakarrik lehenengo pertsonan bizi dutenena.



ETXEAN

Familiak zer “ekintza” egin dezakeen pentsatuko du, desberdintasunen aurkako “erantzun” bat sortzeko: elikagaien bankuari elikagai-dohaintza bat egitea, herrialde pobreetara txertoak eramateko diru-laguntza bat egitea, Aldeas Infantiles SOSeko bazkide edo babesle egitea **gazteren batek aukera hobek izateko modua eduki dezan**, etab. Zenbat eta desberdintasun gutxiago munduan, orduan eta hobea izango da denontzat..

FIGURA EZEZAGUN HORIEK



HELBURUA

Nahiz eta gure gizartea gero eta globalizatuagoa izan, guregana iristen diren informazioak ez dira baldintza beretan iristen, eta kultura batzuek beste batzuei gailentzen zaizkie; ekin diezaiozun informazioa bilatzeari, eta borroka gaitzen kultura guztiak izan dezaten berdintasuna edukietan eta ezagutzan.



IDEIA NAGUSIAK

Ikuspegia zabaltzea, informazio alternatiboa bilatzea, beste kultura batzuekiko interesa adieraztea, eta jakin-minari eustea.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak, Internetarako konexioa, mugikorrak, etab.; aurkezpenak egiteko programaren bat, esate baterako **PowerPoint** o **Prezi**. Erabilera libreko eta **doako argazkiak eta bideoak** egiteko oinarriak. **Bideo-ediziorako programak**.



GARAPENA

Gizarte-zientzien klasean, ikasleak taldetan banatuko dira. Informazioa bilatu behar dute atzerriko herrialde bateko pertsonaia ospetsu baina nahiko ezezaguna egiten zaigun bati buruz: gerta daiteke guk hari buruzko informazio askorik izan ez arren, eta Afrikakoa edo Asiako herrialderen batekoa, Errusiakoa edo herrialde baltikoetakoa, Ertamerikakoa, etab. den horrek **Nobel saria** edo **Asturiasko Printzesa saria** jasotakoa izatea. Talde bakoitzak herrialde bat aukeratuko du eta herrialde hartako politiko esanguratsu, zientzialari eta asmatzaile, kirolari, idazle eta abarren inguruko informazioa bilduko dute. Behin informazioa lortuta, kartelak egin behar dituzte –denak formatu batekoak– ikastetxeko korridore bat apaintzeko. Horrekin batera, bertsio digital bat prestatuko dute gure sare sozialetan zabaltzeko birala bihurtu arte.



GEHIAGO

Kahoot bat antolatuko dugu, eta, horretarako, bost ikaslek galderak prestatuko dituzte, borondatez (puntu bana jasoko dute trukean). Helburua da jakitea ea zenbat ikaskidek ezagutzen dituzten gizateriak aurrera egin dezan ekonomia, politika, literatura, zientzia... arloetan ekarpen garrantzitsuak egin dituzten pertsonaia nabarmen batzuk, Nobel Saria jaso duten batzuk barne. Gai gara modako abeslari guztiak ezagutzeko, baina ez pertsona nabarmen horiek ezagutzeko? Zergatik ez zaie arreta handiagoa eskaintzen? Zergatik ez dira gure eredu? Kahoota

Virat Kohli

Jugador y estrella de cricket

Kei Nishikari

Tenista

CHIMAMANDA NGOZI ADICHIE

escritora famosa

Larisa Akrofi

Ingeniera

Adeola Olubamiji

Científica biomédica

Gabriela González

FÍSICA

Celina Maria Turchi Martelli

DOCTORA E INVESTIGADORA

Yegor Kreed

Cantante de hip hop

FAN BING BING

ACTRIZ Y MODELO

Simohamed Lakhdor

Diseñador de moda

bukatzen denean, irabazleari saria emanda, eztabaida egingo dute gaiaren inguruan: zergatik ez dute interesik pizten? Zergatik ez dira ezagunak?

Agian ezezagunak zaizkigun beste kultura eta herrialde batzuetakoak direlako? Urrun daudelako edo beste hizkuntza batean mintzo direlako?... (dena den, Portugal oso hurbil izan arren, oso gutxi ezagutzen ditugu hango pertsonaiak; Hegoamerikan, berriz, espainieraz egiten dute, baina horrek ez du ekarri guk hango pertsonaiak hobeto ezagutzea...) Zergatik dakigu hainbeste Estatu Batuei buruz, beste kontinente batekoa izanik eta hizkuntza konpartitzen ez badu? Zer egin daiteke informazio-isuria zabalagoa izan dadin? Uste duzu interesa duten taldeen artean badaudela informazioa hedatzeko beste sare batzuk? Zer egin dezakegu ezagunagoak izan daitezen?



ETXEAN

Astero, asteburuko momenturen batean, familia osoa elkartuko da **film edo telesail** bat ikusteko; baina ezin du izan Estatu Batuetan, Ingalaterran edo gure herrialdean egina. Kultura guztiak baldintza beretan eta naturalki hedatzen direla pentsatu arren, errealitatea ez da hori, eta, horregatik, beharrezkoa da beti adi egotea eta jakin-gose, beste mundu batzuk deskubritzeko prest. y por ello es necesario mostrarse siempre atento y curioso por descubrir nuevos mundos.



COVID-19A: NOLA ARI DA ALDATZEN LANA?

Orain dela hilabete batzuk zenbait aste eman genituen etxean konfinatuta, koronabirusak jende asko kutsatu zuen, eta gure herrialdean bertan milaka pertsona hil ziren haren ondorioz, birusari aurre egiteko tratamendu argirik eta txertorik ezean. Ehun urtean izandako pandemiarik gogorrena izan den gertakari tragiko hori mugarri izango da historian eta harreman pertsonal eta sozialetan.

Pandemiaren ondorioz, ekonomiak kolpe latza jaso du: milioika pertsonak lana galdu dute; ehunka mila negozio itxi behar izan dituzte; soldatak murriztu egin dira, etab. Zailtasun horiek guztiek are sakonagoa bihurtu dute desberdintasun sozialen arrakala, eta bereziki jo ditu klaserik pobreenak, lehendik ere ezegonkor eta zaurgarrienak zirenak, eta ikaragarri zaildu zaie “pobreziaren zirkulutik” ateratzea.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) iragarri du **gazteak** izango direla sektorerik kaltetuena maila ekonomikoan, haiek izaten baitituzte lanaldi partzialak eta aldi baterako lan-kontratuak, eta, gainera, gazteek ez baitute dirua aurrezteko denborarik izan. Horregatik, une eta egoera honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da pentsatzea nola egin dezakegun aurrera elkarrekin denon ahotan dabilen “errealitate berrian”, desberdintasunek inoiz baino leku gutxiago izan dezaten.

JARDUERA PROPUESTA

Helburua da saltoki txikien lanari eta bertako produktuari babesa ematea. Egin ezazue auzoaren edo herriaren mapa zer eskaintza dagoen jakiteko, eta presta itzazue orrialde berde batzuk hurbileko kontsumoa sustatzeko.

Auzoaren gida erabilgarria egin ondoren, hausnarketa kolektibo eta indibidualerako gune bat proposatuko dugu:

- Auzoan dagoen eskaintzak harritu egin zaituzte?
- Zer zerbitzu dira ugariak? Zer gabezia dago? Aukera ikusten duzue enplegu gehiago sortzeko?
- Zer premia berri ari dira sortzen? Zer egin dezakezue gazteok premia horiek asetzeko?
- Bururatzen al zaizue nola iritsi beste leku batzuetara, herriaren mugez harago?
- Egoera txarra izan arren, zer **lan-aukera** ari dira sortzen?
- Zer lanetan ikusten duzue zeuen burua, norberaren izaera, bokazioa eta trebetasunak kontuan hartuta?

JUSTIZIA, BAKEA ETA BIOLENTZIA EZA

16 PAZ, JUSTIZIA
E INSTITUCIONES
SÓLIDAS





JUSTIZIA, BAKEA ETA BIOLENTZIA EZA

Justizia, bakea edo biolentzia eza a priori hotsandiko kontzeptuak iruditzen zaizkigu, abstraktu samarrak. Tamaina eta konplexutasun handiko kontzeptuak direnez, pentsatzen dugu guk, gure adina eta ezagutza kontuan hartuta, ez daukagula haiei buruz ezer asko esaterik edo ezertan esku hartzerik. Baina, ia denean bezala, eragiteko eskala bat baino gehiago dago, eta beti izaten da gure neurrira egokitzen zaion bat.

Gure neurrira ekarritako **justizia**, bakea edo biolentzia eza, hain zuzen ere, egunerokoak dira. Gure izaera eta jokabidea zuzendu behar dute bizimodu baketsua eta lasaia izan dezagun eta errespetuz jardundezagun familiarekin, ikaskideekin eta irakasleekin; biolentzia gure bizitzetatik betiko erauzi dezagun, gatazken konponbidea arrazoian eta elkarrizketan oinarritu dezagun, eta gizakion, animalien eta planetaren eskubideak urratzen direla ikusten dugunean, salatu dezagun. Abusuzko jokabideak, bortitzak, zekenak, egoistak, beldurra baliatzen dutenak, etab. ezabatu behar ditugu, halako jarrerak dituen pertsona nabarmen utzi behar dugu, eta, norbaiti bidezkoa ez den tratua ematen zaiola ikusten dugunean, argi jakinarazi behar dugu gure kontrako jarrera. Horrela ekidingo dugu gutxi batzuek adiskidetasunean bizi nahi dugunoi –gehienak– beren arau autoritario eta bidegabeak ezartzea: ikaskideen lepotik barre egitea itxura fisikoa dela eta, aurrez aurre nahiz sare sozialetan; lagunak janzkeragatik edo zenbait gauza egitera ez ausartzeagatik bazterrean uztea; ikasle gazteenak erabiltzea edo haiei gauzak lapurtzea, etab. Ez dira batere gauza abstraktuak, eta jokabide horiek aldatzea gure esku dago. Hori da eguneroko justizia: gure

bizitzen ardatzean dagoena. Egunerokoaren aktibistak bihurtzen hastea gaztetxoei dagokien ardura ere bada. Denok ekiten badiogu, gaitasun handia izango dugu ingurua eraldatzeko.

Ez dago inolako trabarik bakearen eta **justiziaren**, alde eta biolentziaren aurka borrokatzeko. Baldintza bakarra da zentzuz jokatzeko, ekin aurretik pentsatuz, eta beti oinarrizko galdera honi erantzunez: ondo al dago hau? Hobeto edo geure erara egin daiteke? Erantzuna ere oso sinplea da; modu batera edo bestera jokatu, gure baitan beti jakingo dugu bereizten zer dagoen ondo eta zer ez, zer den justua eta zer bidegabea. Utz ditzagun aitzakiak, ez dezagun beste alde batera begiratu, bestela huts egingo baitiogu 16. Gilhari.

Aldiz, arduraz jokatzen badugu eta zuzena ez denaren aurrean salaketa egiten badugu, laster eskuratuko dugu, belaunaldi honetan bertan, ezin justuagoa den helburu bat, pertsona gisa hobeak egingo gaituena eta gure gizartea bizitzeko leku hobe bihurtuko duena.

HERRI EPAIMAHAIA



HELBURUA

Ebatzi beharreko kasu batzuen proposamena; entzuketara aktiboa, pentsamendu alternatiboa, pentsamendu normatiboa, hausnarketa etikoa; hainbat ikuspuntu, hurbilketa eta bizitza ulertzeko modu daudela onartzea. Justiziaren kontzeptu "ortodoxoa" eta interpretatiboa aplikatzea.



IDEIA NAGUSIAK

Entzuketara aktiboa, arretaz eta errespetuz; parte-hartzeen txandak errespetatzea; aurrez ezarritako iritziak ekarri ordez, gertakarien interpretazio desberdinak **estar abierto** lege eta arauetan oinarritutako erabakiak hartzea, eta modu inpartzial eta justuan aplikatzen saiatzea.



BALIABIDEAK

Telesailen irudiak proiektatzeko arbel digitala; kartulina gorriak eta berdeak txartelak egiteko, eta etxeko mozorro edo jantziak.



GARAPENA

Tutoretzako klasean, irakasleak hiruko taldetan jartzeko proposatuko die ikasleei: akusatua, defentsako abokatu eta fiskala (akusazioaz arduratzen den abokatu). Ikasleek akusatua nor izango den erabaki behar dute: ikusia duten oraingo telesail bateko pertsonaia bat aukeratuko dute, beren ustez, fikzioan erakusten duen jokabideagatik, epaiketara



eramatea merezi duelako: **Juego de tronos**-eko Eddard Stark edo Cersei Lannister; **Breaking Bad**-eko Walter White edo Jesse Pinkman **La Casa de Papel**-eko Tokio edo Palermo, etab. Abokatuak bere bezeroaren defentsa egingo du, fiskalak adierazi behar du zer leporatzen dion, eta, azkenik, akusatuak ere tarte bat izango du gertatutakoaren bere bertsioa azaltzeko. Gainerako ikaskideek kasu bakoitza aztertzeko herri epaimahaia osatuko dute: isilik entzungo dute, errespetuz, entzuten ari diren horretan kontzentratuta. Kasuak justiziaz ebazteko, arreta osoa jarri behar da, aldeek esaten dutena ulertu behar da, lasaitasunez hausnartu eta ondorio batera iritsi. Bukaeran, bozketa egingo dute: akusatua erruduna delakoan badaude, txartel gorria erakutsiko dute; errugabea delakoan badaude, berdea erakutsiko dute.



GEHIAGO

Egoeran “sartzeko”, ikasleak aukeratutako telesaileko pertsonaien arabera mozorrotuko dira; abokatuak eta fiskalak estilo klasiko eta formalagoa izan behar dute. Epaiketa bideoz grabatuko da a posteriori ikusi ahal izateko, epaimahaikideren batek akusatua “errugabea” edo “erruduna” den erabakitzeko garaian zalantzarik izango balu ere.

ETXEAN

Ettxeko guztiek ikasgelan aukeratutako telesailen bat ikusiko dute; gurasoei eskatuko zaie akusatuei buruzko iritzia emateko. **Abokatu**en telesailen bat ere ikus daiteke, egoeran sartzeko. Alde handia dago telesailletako akusazio eta defentsen eta ikasgelan egindakoen artean?

HAURRAK ETA EMAKUMEAK LEHENENGO



HELBURUA

Gizartean bizikidetzatza justua eta baketsua izan dadin, generoan, maila sozialean eta maila ekonomikoan **equidad**-printzipio batzuk gorde behar dira. Haiei esker, zenbait arau ezartzen dira egoera zaurgarri eta ahuletan daudenek baldintza-berdintasunean bizitzeko aukera izan dezaten.



IDEIA NAGUSIAK

Bidezko gizarte bat erregulatzen dituen lege eta arauak errespetatzea eta defendatzea, pertsona guztiek aukera-berdintasuna izan dezaten, edozein dela ere haien generoa, adina, arraza, klase soziala, etab.



BALIABIDEAK

Banku luze bat, zazpi pertsona esertzeko modukoa; ordenagailuak eta Internetarako konexioa.



GARAPENA

Tutoretzako klasean, **“el naufragio”**: izeneko talde-dinamika klasikotik datorren role play bat aurkeztuko die irakasleak: ikasgela **Titanic** itsasontzia da, eta hondoratzen ari da; salbamendu-txalupa bat dago – ikasgelako banku bat–, baina zazpi lagun bakarrik sartzen dira han. Ikasle bakoitzari zenbaki bat eta pertsonaia bat esleituko zaizkio, eta, handik aurrera, salbamendu-txalupan egoteko daukan eskubidea aldarrikatu behar du bere pertsonaiaren ezaugarriak

jokatuz: haurra, umetxoa, adineko pertsona, ama ezkongabea, haurdun dagoen neska, familia ugari bateko aita, medikua, erizaina, itsasontziko kapitaina, apaiza, etab. Ikasle bakoitzak minutu bat izango du azaltzeko zergatik merezi duen berak txalupara igotzea. Gero, galdetegi baten bidez (Google Forms aplikazioaren txantilo bat erabil daiteke, edo Kahoot bat egin) ikasle guztiek bozkatu behar dute zein diren txalupan egon eta bizia salbatu behar duten zazpi pertsonaiak. Bukatzeko, emaitzaren berri eman ondoren, aukeraketa bidezkoa iruditzen zaien komentatuko dute.





+ GEHIAGO

Bozketaren emaitza ezagututa, debatea egingo dute ikasgelan, irakaslea moderatzaile-lanetan jarrita: ikasleek azaldu behar dute ados dauden bizirik atera behar dutenak aukeratutako zazpiak izatearekin. Iritzia ondo argudiatu behar da.



ETXEAN

Etxekoek hondamendiei buruzko film edo telesailen bat ikusiko dute elkarrekin, adibidez, *The Impossible* (Lo Imposible), *Outbreak* (Estallido), *The Rain*, *Titanic* edo ***The expanse*** telesailaren 2. denboraldiko 12. atala, hain zuzen ere, dilema hori baitu hizpide, eta arreta berezia eskaintzen baitzaio pertsonaiek beren generoaren, adinaren, lanbidearen, eta abarren arabera jokatzen duten rolari.

EGUNEROKO DILEMAK



HELBURUA

Gure ezagutzatik eta bizitzak eman digun eskarmentutik abiatuta, eguneroko gatazkei erantzuna eta konponbidea eskaintzea, betiere justizian oinarrituta.



IDEIA NAGUSIAK

Gogoetatsua, zentzuduna, enpatikoa izatea eta gure jokabidea ondo dagoenaren arabera finkatzea, ez gure inguruan joera nagusia denaren arabera; dirudiena baino askoz errazagoa da.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak eta Interneterako konexioa.



GARAPENA

Ikasleak 4 edo 5 laguneko taldetan banatuta, irakasleak proposatuko du **“Aldeas Infantiles SOSen “Menudo Dilema”**. atalerako ikasleek dilema moralak sor ditzatela. Lotura horretan Kohlberg-en **garapen moralean** eta Manuel Segura ira-kaslearen hezkuntza moralean oinarritutako adibide ugari aurkituko dute. Ikasle bakoitzak dilema baten edo egoera gatazkatu baten berri emango du, ahalik eta xehetasun gehienekin eta esperientziatik abiatuta. Webgunea hartuko dute eredu: dilemak eta, egoera baten aurrean, norberaren jarreraren arabera, sor daitezkeen erreakzio ezberdinak erakusten dira bertan. Erantzun bakoitzaren oinarrian, gainera, hezkuntza moralaren maila bat dago: beldurra, egoismoa, taldearentzat onena dena egitea edo ahalik eta etikoena izatea, guztien eskubideak errespetatuz eta ondo dagoenaren eta gaizki dagoenaren kontzeptua era objektiboan baliatuz. Seguru ez dutela arazorik izango, ehunka baitira erreakzionatzeko garaian nahasmena eta gatazka eragiten diguten egoerak. Dilema bakoitza ikaslearen zenbakia izango duen dokumentu partekatu batean sartuko da.





GEHIAGO

Ikasleek **dilema**, guztiei erantzungo diete, eta bukatzean, emaitzak aztertuko dituzte: gogoeta egingo dute ea pertsona zuzenak diren edo ez, ezaxolak eta **apatikoak** diren, pertsona inplikatuak diren edo ez, **enpatikoak** diren, justiziarri garrantzi handia ematen dioten edo ez, etab.

ETXEAN

Gurasoei eskatu behar diete azaltzeko ea noizbait gertatu zaien ondo ez jokatzea eta nola jokatu ez zekitela geratzea: adibidez, lankideren bat **bidegabeki** kaleratu zutenean ez zutelako pentsatzen zutena adierazi; komunitateko bizikidetza-arauak errespetatu gabe musika edo telebista ozenegi jarri zutelako, edo garbigailua gaueko ordu txikietan jarri zutelako, **bizilagunen**, loari traba eginez, etab. Elkarrekin egingo dute hausnarketa, ea zein izango zatekeen jokatzeko erarik zuzenena.

IZAN GAITEZEN JUSTUAK ELKARREKIN



HELBURUA

Ahalik eta objektiboan izatea justua dena eta ez dena bereizteko, eta egoera batek izan ditzakeen interpretazio ezberdinak onartzea, betiere ikuspuntu arrazional batetik eta enpatia erabiliz.



IDEIA NAGUSIAK

Geratzea, distrakziorik gabe adi entzutea, pentsatzea, gertakariei buruz hausnartzea eta ondorio batzuetara iristea.



BALIABIDEAK

Folioak, boligrafoak, kartoiz egindako kutxa bat; ordenagailuak eta Internetarako konexioa.



GARAPENA

Tutoretzako edo Gaztelaniako klasean, irakasleak **kontakizun** bat idazteko proposatuko die: benetako gertakarietan oinarritutakoa izan behar du; ikaslea bera edo ikaskideak izango dira protagonista, baina egileak, gutxienez, gertakarien lekuko izan behar du. Istorioa bidegabekeria bati buruzkoa izango da –ez du zertan garrantzi handikoa izan–, eta, testuaren bukaeran, salatu behar da gauzak ez zirela ondo egin. Protagonisten izenak aldatu egin behar dira. Helburua ez da inor salatzea, bidegabeak diren egoerei buruz hausnartzea baizik. Behin bukaera emanda, istorioa kutxan sartu behar dute. Ordenagailuz idaztea da beste aukera bat, eta, gero, partekatutako karpeta batean jartzea. Azkenik, ikasgelan irakurriko dituzte denak: ikasleek bidegabekeria identifikatu behar dute, eta zer irtenbide eman behar zitzaien proposatu.



GEHIAGO

Gatazkak konpontzeko, garaian ikasleak ez badira ados jartzen, beste ikastalde eta maila batzuetako ikasleak gonbida daitezke, eta haiei iritzia eskatu, teoriarantz iritzi objektiboagoa izango dute eta.



ETXEAN

Etxeko arauak berrikusi eta aipatuko dute zein arauarekin ez dauden ados: ordutegiak, pantailen erabilera, etxeko lanen banaketa, menuak, etab. Gatazka edo desadostasunei konponbide adostua ematen saiatuko dira.

NIK AGURTZEN DUT



HELBURUA

Bakea lortu ahal izateko, aurretik jendearen artean adeitasun, amultsutasun eta sinpatia giroa sortu behar da. Hori guztia sustatzeko bidea oso oinarritzkoa eta egunerokoa da: elkar agurtzea.



IDEIA NAGUSIAK

Elkar agurtzea, begietara begiratzea, presente egotea; adeitsua, hezibide onekoa eta adiskidetsua izatea; amultsutasun-giroa sortzea. Ikusezintasun soziala eta bazterketa. Hizkuntza ez-berbala.



BALIABIDEAK

Kartoiak, guraizeak, errotulagailuak, espraiak, era guztietako margoak. Txapak egiteko makina eta ordezko piezak.



GARAPENA

Plastikako klasean, **tutoriales** laguntzaz, abanikoak egingo dituzte, etxetik kartoiak ekarri eta ikasgelan dekoratuta; bestela, txapak egiteko makina baldin badago, txapa pertsonalizatuak egingo dituzte. Abaniko edo txapa horietan mezu edo agurren bat idatzi behar da: kaixo, egun on, arratsalde on, zer moduz? dena ondo? ciao, hi!, hello, ni-hao, marhabaan, etab.

Gero, irakaslearekin batera, autobusa edo metroa hartuko dute, eta, bidaiariak igo ahala, ikasleak haiengana gerturatu eta abanikoak eta txapak banatuko dizkiete: **kontaktu bisuala**, ahaztu gabe, **irribarrea**, ahoan, tonu egokia erabiliz eta adeitsu agurtuz. Garraio publikoan ez ezik, osasun-zentro batean, institutuaren atarian, Postetxean edo plaza jendetsu batean ere egin daiteke. Norbait agurtzeaz gain, paperezko abaniko bat edo txapa bat oparitu dakiok, hark ere agurtzearen aldeko mugimendurekin bat egin dezan. Horrela, denok izango gara kontziente besteaz, eta inor ez dugu ikusezin bihurtuko. Helburua da agurra berreskuratzea, pertsonarekiko adeitasun eta errespetu keinu bat delako, inoiz ez diolako modan egoteari utziko, eta ezin dugulako utzikerian erori eta elkar ikustean batak besteari ezer adierazi gabe geratu.





GEHIAGO

Abanicos eta **txapa** gehiago egin ditzatela, eta, goizean, institutuko atarian banatu, sartzeko orduan. Ikaskideak alaitasunez agurtuko dituzte, haiek ere kutsa daitezen, eta erantzun dezaten; ezinbestekoa da begietara begiratzea eta kontaktu bisuala bilatzea; zenbat eta gehiago konturatu pertsonak ditugula inguruan, orduan eta errazagoa izango da biolentzia ekiditea eta bakean bititzea.



ETXEAN

Kontratu bat sinatuko dugu elkar agurtzeko goizean esnatzean, etxeko sarrera-irteeretan eta lotara joatean; konpromisoa betetzen ez duenak penalizazioa “ordaindu” beharko du; familia bat gara eta maitekor jokatu behar dugu elkarrekin, etxeko giroa baketsua izateko eta biolentzia erabat ezabatzeko.

BIDEZKO MERKATARITZA?



ondorioz, kontsumo-produktuen prezioaren ehuneko handi bat eskaintzen zaio garraioari eta supermerkatu-kate handien jabeei, bitartekari-lana egiten baitute. Askotan, ekoizlea da irabazirik txikiena duena, ahalegin guztiak egin eta arrisku handienak bere gain hartu arren. Hori dela eta, gero eta banaketa-kate alternatibo eta bidezko gehiago dago; haiei esker, ekoizleek ez dute saltoki handiek ezarritako “prezioen diktaduren” esanetara jarri behar. Auzora atera eta bidezko merkataritzako **dendaren bat**. bisitatuko dute. Bertan ez badago halakorik, webgunea bisita daiteke *online*.



HELBURUA

Entender un concepto cada vez más popular y extendido en nuestra sociedad como es el de “**comercio justo**” y reflexionar por qué se debería apostar por su consumo.



IDEIA NAGUSIAK

Elkartasuna, baldintza-berdintasuna, justizia saltoki eta ekoizle txikientzat, etab.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak eta Interneterako konexioa.



GARAPENA

Tutoretzako edo Etikako klasean, bidezko merkataritzaren esanahia aztertuko dute; gaur egun, merkataritzaren logistika eta kontsumo-ohiturak izugarri eraldatu dira, eta,



GEHIAGO

Askari bat prestatuko dute auzoko dendetan edo Internetez erositako bidezko merkataritzako produktuekin: kafea, tea, txokolatea, gozoak, etab. Produktuetako batzuk nazioarteko bidezko merkataritzakoak izan daitezke, noski.



ETXEAN

Etxean, konpromisoa hartuko dute hileroko erosketan egin behar denean, haren zati bat hurbileko saltokietan edo “**comercio justo**” denda fisikoetan edo *online* dendetan egiteko. Bidezko merkataritzaren barruan, oso produktu eskuragarriak dira barazkiak eta garaiko fruta, arrautzak eta haragia, adibidez.

LEGEA EZARRI EDO INTERPRETATU



HELBURUA

Legeak **pertsonek erredaktatzen dituzte** eta epaileek ezartzen dituzte; erredaktatzea eta ezartzea, biak egiten dira ahalik eta adostasun handienarekin, beti lekuaren eta unearen errealitatea aintzat hartuz.



IDEIA NAGUSIAK

Objektibotasuna, inpartzialtasuna, zentzua, aurreiritzik ez izatea, ikuspegi zabala edukitzea.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak, Interneterako konexioa eta epaiketa antzetzeko atrezzoak.



GARAPENA

Filosofiako edo Gizarte-Zientzietako irakasleak hiru multzotan banatuko du ikastaldea: lehenengo taldeak ikasturtea alderdi guztietan ondo joan dadin bete beharreko arauak idatziko

ditu; bigarren taldea legeak ezartzeaz arduratuko da, epaile, abokatu, fiskal, akusatu eta abarren rola aintzat hartuz; eta hirugarren taldeak aztertu behar du legeak akatsik baduen, eta nola jarri behar diren errekursoak edo erreklamazioak legearekin edo legea aplikatzeko moduarekin ados egon ezean. Adibidez, idatzitako lege batek klaseko puntualtasunaren arautegiari buruzkoa bada, horrelako zerbait jaso dezake: “ikasgelara klasea hasita dagoela hiru aldiz iritsiz gero, ikasleak errefortzuko lanak egin beharko ditu behe-mailetako ikasleekin”. Talde bakoitzak azalpen bat egingo du guztien aurrean zertan aritu diren azaltzeko. Gero, talde bakoitzeko ordezkari bana bilduko da besteekin, ikastetxeko webgunerako irratsaio-itxurako **podcast bat grabatzeko** gaiari buruz.



GEHIAGO

Ikasturteak aurrera egiten duen heinean, legeak berrikusi behar dituzte, edukiekin ados jarraitzen duten aztertzeko; batzuetan, denbora pasa ahala, gauzak antolatzeko erak aldatu egiten dira, eta arauak desfasatuta eta zaharkituta geratzen dira.



ETXEAN

Filmak eta telesailak ikusi edo saiakerak eta nobelak irakurriko dituzte, epaia zuzen eman ez eta gerora argitu ziren kasuei buruzko istorioak ezagutzeko.

ZURE TESTAMENTUA, PRINTZPIOEN ADIERAZPENA



HELBURUA

Testamentua pertsonaren azken nahien testigantza jasotzen duen testua da; alegia, hil eta gero, zer nahi duen egitea bere jabetzekin eta legatuarekin; ikasleek pentsatu behar dute nork nahi luketen beren ondasunak eta pentsaera jasotzea.



BALIABIDEAK

Ordenadores y conexión a internet.



GARAPENA

Filosofiako edo Tutoretzako klasean informazioa bilatu behar dute pertsona ospetsu batzuek, gizarte osoaren eta bizileku dugun planetaren ongizatea helburu, egin dituzten bizi-testamentu eta legatuei buruz: **Bill Gates**, **Al Gore**, **Leonardo di Caprio**, **Amancio Ortega**, **Leo Messi**, etab. Ikasleek irudikatu behar dute 10 milioi euro dutela, adinekoak direla eta testamentua idatzi behar dutela. Nori utziko diote diru hori guztia? Familiari? Dirutza handia da. **Testamentu solidarioa**, egitea erabakitzen badute, alegia, ondarearen zati bat pertsona eta animalien bizikaltatea eta ingumenaren alde lanean diharduten fundazio eta entitateei utzi nahi badiete, zehaztu egin beharko dute nori eta zergatik.



IDEIA NAGUSIAK

Etorkizunean pentsatzea, gizartea nola hobetu hausnartzea; elkartasunak pertsona behartsuenengan jarri behar du arreta, horrela lortuko baitugu mundua justuagoa eta zuzenagoa izatea.



+ GEHIAGO

Komentatu notarioen elkargoaren **albiste hau** 2018. urtean gure herrialdean jaso ziren legatu solidarioei buruz. Badakizue zati bat beti izaten dela oinordekoentzat? Legatu horiek familietan ondoeza eragingo ote zuten? Badakizue zer gertatzen den familiarik gabe hiltzen diren pertsonen ondasunekin? Diru eta jabetza horiek egoki eta zuzen erabiltzea posible dela uste duzue? Badakizue diru hori elkarteen artean bana daitekeela, adibidez? Orain urtebete Aldeas Infantiles SOSek egindako kanpainarekin bat egin zutenak, legatu solidarioak kutsatuta, nola sentitzen diren ikustera gonbidatu nahi zaituztegu. **“Gmeiner-en sindromea”** deitzen diogu guk Herman Gmeiner-en omenez, GKEaren sortzailea. Filantropo austriarrak bizitza osoa eskaini zion babesik gabeko haurtzaroari.

🏠 ETXEAN

Testamentuak eta azken nahiak idazteko unea iritsi bitartean, familiak laguntza eman dezake kausa on baten alde, adibidez, Aldeas Infantiles SOSekin kolaboratuz. Milioika euro ez baditugu ere, denok egin dezakegu gure bizi-mailaren araberako ekarpen bat. Garrantzitsuena zerbait egitea da, eta asebeteta sentitzea laguntza eman dugulako gizarte eta planeta osasungarriagoak izan ditzagun.

ZER NAHIKO ZENUKE EGITEA MILIOI BAT PERTSONAK?



HELBURUA

Jende askoren artean egiteko moduko zerbait pentsatzea, oihartzun handikoa, eta gizarteari laguntza handiko ekarpena egingo diona.



IDEIA NAGUSIAK

Gizabanako baten ekintza txiki batek oihartzun handia izan dezake maila kolektiboan; taldearen eta jendearen indarra. **Gizarte aktibismoa**.



BALIABIDEAK

Ordenagailuak eta Interneterako konexioa.



GARAPENA

Lehenengo, modu errazen bat pentsatu behar da milioi bat pertsona mobilizatzeko gizartean aldaketa esanguratsuren bat eragiteko asmoz, adibidez: gizabanako bakoitzak euro bat ematea, eta, horrela, milioi bat euro biltzea elkartasun-ekintza handi bat egiteko; jendea odola ematera animatzea, behin bakarrik ematea nahikoa litzateke; landare bat edo zuhaitz txiki bat landatzea lorategi publiko batean edo mendian, etab. Behin proposamen guztiak entzunda, bozketa egingo dute, eta boto gehien lortzen dituen aukeraren garatuta, kanpaina bat prestatuko da milioi bat pertsonaren atxikimendua lortzeko asmoz, horretarako e-mailak masiboki bidaltzeko **Acumbamail**, **Mailchimp** edo **Sendinblue**, bezalako plataforma digitalak erabiliz.



GEHIAGO

Ikerketa egingo dute jakiteko nola lor daitezkeen milioi bat pertsonaren helbide elektronikoak; modurik bistakoena da hezkuntza-komunitatetik abiatzea, haiek ere ikasleak izango dira eta.



ETXEAN

Ezagutzen al duzu **aktibista** den norbait zure auzoan edo herrian? Iraultzaile tankera hartzen diozu edo, besterik gabe, besteen defentsa egitearekin lotzen duzu? Edonor izan daiteke **activista de lo cotidiano** bere taldearen mesedetan ari bada. Ez dago oso urrutira joan beharrik: familia baten barruan, edo bizilagunen artean, etxeko teilatuan eguzki-plakak jartzeko eskatzea edo baratze kolektibo bat egitea; utzitako edo hondatutako eraikinen bat zaharberritzen laguntzea, etab. Izan zaitezte aktibista hiruhileko batean, ea zer moduzko esperientzia iruditzen zaizuen!



DENOK MEREZI DUGU JUSTIZIA BERA?



HELBURUA

Justizia, nolabait esateko, bizitzaren joko-arauak dira. Justiziarik egongo ez balitz eta planetako edozein lekutan egoki aplikatuko ez balitz, jokalaririk batzuk desabantailan egongo lirarteke. Borroka egin behar da hori saihesteko.



IDEIA NAGUSIAK

Justizia unibertsala, edozein herrialde eta gizartetan. Denok merezi dugu, eta izan beharko genuke.



BALIABIDEAK

Atrezzoak, folioak eta boligrafoak. **Espainiako adingabeen legea.**



GARAPENA

Tutoretzako klasean, irakasleak lauko taldeak egingo ditu; ikasleek fikziozko egoera bat antzetzuko dute, eta justiziaren bitartez zuzendu beharko dute gatazka bat. Adibidez, defentsa

legitimoan egindako erailketa bat eta aldez aurretik pentsatutako beste bat; oso pobrea den ume bat sartu da supermerkatuan eta janaria lapurtu du, bigarren kasuan, erosketa egiten ari den adineko bati egin dio lapurreta; adingabea gazte batek drogak saldu dizkie kalean helduei, edo, beste kasu batean, bera bezalako adingabekoei; nerabe "pijo" batek musika, film eta liburu piratak deskargatu ditu, eta, beste kasu batean, bere telefonoa edo ordenagailua beste baliabiderik ez duen nerabe batek egin du deskarga, entretenimendua edo kultura pixka bat lortu ahal izateko... Binaka edo hiru jarrita ikuspuntu bat baino gehiago egongo dela ziurtatzeko, ikasleek testu bat idatziko dute azaltzeko ea deskribatutako egoera bidezkoa den edo ez, eta nola zigortu beharko litzatekeen delitua egin duen pertsona, kontuan izanda kasu bakoitzean zer **zirkunstantzia aringarriak, salbuesleak edo astungarriak** egon daitezkeen. Helburua da ikustea kasu guztiak ez direla berdinak, nahiz eta delitu bera izan.



GEHIAGO

Ikerketa egingo dute ikusteko legeak bereziki babesten dituela gazteak **Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren** bitartez, besteak beste.



ETXEAN

Pertsona batek delitu bat egiteagatik jaso dezakeen zigorrak gogorrena heriotza-zigorra da. Gure herrialdean ez dago halakorik, baina munduko beste leku batzuetan bai; galde diezaietela gurasoei zer iritzi duten horri buruz.



COVID-19A: NORK DEFENDATUKO GAITU?

COVID-19 birusa iristearekin batera, gure eguneroko bakea hankaz gora jarri zen. Dena aldatu zen: konfinamendua, distantzia soziala, kutsatutakoak, hildakoak –bereziki adin batetik gorako belaunaldietan, gure aitona-amona maiteen artean–, etab. Une latzak eta mingarriak izan ziren denontzat. Pandemiaren ostean, “normaltasun berria” aipatzen dugu, gauzen erritmo berrira egokitu nahian. Arau berriak sortu dira, gomendio berriak, eta baita zigor eta jurisprudentzia berriak ere.

Gure defentsan diharduten erakundeek eta figura babesleek indartu egin behar izan dute kolektibo babesgabeak injustiziaren jomugan jartzen dituen errealitate kezkarriari aurre egin ahal izateko: lanaren galera, langabezia-tasa altuak gazteen artean, eta **adingabeak babesteko** premia. Baikor jarrita, baliteke hauxe momentu historiko paregabea izatea birpentsatzeko nola bizi gaitzkeen elkarrekin era bidezkoagoan eta baketsuagoan, pertsonen arteko biolentzia ezabatuz, solidarioak izaten ikasiz, elkar babesteko sare sozial indartsu bat sortuz, eta planeta zainduz, etorkizuna solidarioagoa eta zuzenagoa izan dadin denontzat.

Konfinamenduaren ondorioz, lehendik ere jarrera eta **jokabide bortitzak**, zeuden etxeetan, erasoak areagotu egin dira, noiz

eta biktimek laguntza lortzeko aukerarik ez zutenean, egoerak isolatuta egotera behartu gintuen eta. Eta zer esanik ez gerran bizi diren herrialdeetan, errefuxiatu-esparruetan eta egoera zaurgarrietan bizi diren haur eta gazteen kasuan... Behar-beharrezkoa da justiziak mundu mailan eta era antolatuan ekitea, adingabekoen oinarrizko eskubideak errespetatu daitezken.

JARDUERA PROPOSAMENA

Egoera berriek lege eta babes-sistema berriak behar dituztela iruditzen zaizu? Asma dezagun COVID-19aren osteko egoera honetan babesa emango duen figura berezi bat.

- Zer izen jarriko diogu?
- Zer funtzio izango ditu?
- Nor babestuko du? Zer kasu bidera daitezke harengana?
- Zergatik da beharrezkoa?
- Zer profil profesional hobetsiko dugu figura hori betetzeko?
- Zenbateko funtsak behar dira?

EMAN IZENA GAZTEEN JARDUNALDI NAZIONALEAN!

Urtero, proiektu honi bukaera emateko, jardunaldi kolaboratibo eta bizi bat antolatzen dugu autonomia-erkidego bakoitzeko gazte batekin eta irakasle batekin: **la Jornada de Jóvenes Nacional**.

Proiektu hau egiten eta GIHen aldeko konpromisoaren balioa lantzen ari bazara, izugarri gustatuko zaizu zure ikasleen ahotsa truke-erperientzia honetara eramatea. Ikasturteko balioari buruzko online galdeketa bat egin behar du ikastaldea, eta bozeramaile bat aukeratu Madrilgo topaketa nazionalean parte har dezan. Han, beste ikasle batzuekin batera, urteko gaiari buruz sakontzeko, hausnartzeko eta ondorio komunetara iristeko aukera izango du.

Autonomia-erkidego bakoitzeko ikastetxe batek izango du parte hartzeko aukera, eta ikasle bat eta irakasle bat joan ahal izango dira.

Jardunaldia oso esperientzia aberatsa da, hainbat lekutatik etorritako 17 ikastetxe elkartzen baitira, norik bere lan egiteko modua duela. Aukera izango duzue egun bat igarotzeko zuen interesen antzekoak dituzten beste irakasle eta ikasle batzuekin eta, haiek ere, zuek bezala, konpartitzeko gogo handia dute. Eta batez ere, interes handia dute balioetan hezteko, Aldeas Infantiles SOSek bezalaxe.

Informazio gehiago nahi izanez gero, edo zuzenean izena eman nahi baduzu Gazteen Jardunaldi Nazionalean, bidali **hemendik** mezu elektronikoa bat programaren koordinatzaileari.



TELÉFONO DE ASESORAMIENTO PERMANENTE

670 696 588



ALDEAS
INFANTILES SOS

GELDITU *eta*
pentzatu

PROGRAMA DE
EDUCACIÓN EN VALORES
SECUNDARIA
CURSO 2020-2021

ELKARTASUNA

POBREZIAREKIN, DESBERDINTASUNEKIN, JUSTIZIAREKIN

Aldeas Infantiles SOSek helburu hauek lortzen laguntzen du:

